

K...eta Kitto!

2019-11-8

1087 zkia.

Bixente Martinez Eibarrera bueltan

7 ANOS
GARANTIA
KIA



10
EGUN
KIA

ESKAINTZA
EZIN HOBEAK
Otsailaren
7tik 18ra



The Power to Surprise

Otsailaren 7tik 18ra aprobeztatu Kiaren 10 egunak, eskaintza ezin hobeak datoz-eta Kia gama osoan.

CO₂ emisioak, WLTP konbinatuak NEDC (g/km): 100-178. Emisio CO₂ konbinatuak WLPT (g/km): 121-202. WLTP (l/100km) kontsumo konbinatua: 4,6-8,9. Kontsultatu promozioaren baldintzak eta ezaugarriak www.kia.com webgunean. Penintsulako, Balearretako, Ceutako eta Melillako kontzesionarioen sarean du balioa eskaintza honek. *Kontsultatu KiAren bermeen eskuliburua.

NAIA CAR

Apalategi auzoa, 1
Eibar. Gipuzkoa

www.naiacar.com

Tel.: 943 70 70 33

FORD KONDIA partikularren auto-salmentan **LIDERRAK 2018an** Eibar eta Ermuan



Europako 2019ko
Urteko Autoa-n
FINALISTA

ESKERRIK ASKO



BEHERAPENAK
OTSAILAREN 28ra
ARTE

8.500€ -ra ARTE*

* Kontsultatu kontzesionarioan auto bakoitzari egokitutako baldintzak eta beherapenak



KONDIA
www.fordkondia.com

FORD KONDIA (EIBAR)
Otaola Etorb., 22. 20600 Gipuzkoa
T. 943 202 091

ZIORLA AUTOAK (IURRETA)
Santa Maña Auzoa, 19. 48215 Bizkaia
T. 946 815 569



Euskara Elkarte

ARGITARATZAILEA:
...eta kitto! Euskara Elkarte.

HELBIDEA:
Urkizu, 11. 20600 Eibar

TELEFONOAK:
943 20 67 76 / 943 20 09 18 /
603 598 285.

FAXA: 943 20 28 72.

ASTEKARIAREN E-MAILAK:
erredakzio@etakitto.eus
komunikabideak@etakitto.eus
publizitatea@etakitto.eus

ELKARTEAREN E-MAILAK:
elkarte@etakitto.eus /
normalizazioa@etakitto.eus

ERREDAKZIO-KONTSEILUA:
Ana Aizpurua, Itziar Albizu,
Ekhi Belar, Jose Luis Gorostegi
eta Silbia Hernandez

ADMINISTRAZIOA:
Marisol Uriarte

KOORDINATZAILEA:
Ana Aizpurua

ERREDAKZIO-BURUA:
Silbia Hernandez

DISEINUA ETA MAKETAZIOA:
J.L. Gorostegi

ARGAZKI ARLOA:
Malen Jainaga
eta Malen Illarramendi

HIZKUNTZA ARDURA:
Juan Andres Argoitia
eta Maider Aranberri

PUBLIZITATEA:
Itziar Albizu eta Belen Ulazia

TELEFONOA: 943 20 67 76

AZALEKO ARGAZKIA:
Bixente Martinez

BANAKETA-ARDURA:
Mohammed El Ghabali

TIRADA: 8.150 ale

INPRIMATEGIA:
GERTU koop. (Oñati)

COPYRIGHT-A: ...eta kitto!

LEGE-GORDAILUA: SS/430/92.
ISSN: 1132 - 1679

(*...eta kitto!* k ez du bere gain hartzen aldizkarian
adierazitako esanen eta inntzien erantzunkizunik)



**Eibarko Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiak
eta Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza
Politika Sailak diruz lagundutako aldizkaria**



**EIBARKO
UDALA**



**GIPUZKOAKO
FORU ALDUNDIA**



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

**KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA
(HIZKUNTZA POLITIKARAKO SAILBURUORDETZA)**

eskutitzak

– Korrika prestatzeko bilera duzu hilaren 13an –

Lagun euskaltzale hori:

Jakingo duzunez, aurtten Korrikaz gozatzeko aukera izango dugu berriz ere. Apirilaren 4an Garestik abiatuko da 21. Korrika, apirilaren 14an Gasteiza heltzeko. Eta, hori posible izan dadin, ehunka pertsonak, aurretiaz, lan itzela egiten dihardugu.

Korrikan parte hartzeko moduak askotarikoak dira. Eta, parte hartzeko asmotan bazabiltza, gutun honen bidez gurekin bat egin dezazun eskatzera gatozkizu. Horretarako Eibarren, otsailaren 13an, 18:30ean, AEK euskaltegian egingo dugun Korrika batzordearen lehen deialdira etorrita.

Bertan 21. Korrikaren nondik norakoak eta gure herrian egingo direnak ezagutzeko aukera izango duzu eta, horrela, nahi izanez gero, herrirako bestelako ekitaldiak proposatzekoa ere bai. Horrez gain, herrian

egin beharreko lanak zerrendatu eta banatuko ditugu. Jakin badakigu denok ez ditugula aukera berberak gure ekarpenak egiteko eta, horregatik hain zuzen ere, konpromisorik gabe etor zaitezten eskatu nahi dizugu. Bertan entzundakoaren arabera erabakiko duzu, gero, zeure ekarpena zein izan daitekeen; eta, inolako aukerarik izango ez bazenu ere, Korrika geure herrian izango dela ezagutu eta zabal dezazun da gure nahia.

Korrikak hasiera-hasieratik aldarrikatu duen bezala, bere helburuak bete daitezten, guztion ekarpena eta ahalegina dira beharrezkoak. Denon parte-hartzeaz lortuko dugu Euskal Herri euskalduna, eta denon esku eta oinei esker eraman ahal izango dugu euskararen lekukoa Garestik Gasteiza. Ahalegin horretan zeure laguntza estimagarria izango dugulakoan, besterik gabe.

21. Korrika

Gure aurrekoek erabiltzen zuten euskera

MEHE. - Lodiera txikia, edo normalean baino txikiagoa duena. Bizidunak argalak izaten dira, gainerakoak meheak. "Solomua beti mehe-mehe ebagitzen eban". Arina, pisu gutxikoa. "Oso errazoi mehiak emon dittue zor jakun eskubidia ukatzeko".

astean esanak

"Hego Euskal Herrian (HEE) 174 gizonen eta 54 emakumeen egin zuten beren buruaz beste iaz; emakumeen halako hiru da beren burua hiltzen duten gizonen kopurua. Proporzio hori handiagoa izaten da gazteen eta zaharrenean artean. Adibidez, HEE-n, 15-29 urteen artean beren buruaz beste egin zuten guztiak mutilak izan ziren. 80 urtetik gorakoen artean ere nabarmen gehiago dira beren burua hiltzen duten gizonetakoak, %92. Baina suizidio ahaleginen bat egin zuten 15-19 urtekoen artean lautik hiru ziren neskak"

(IÑAKI MARKEZ, PSIKIATRA)

"2002an 25 gatazka armatu zeuden munduan, eta 2017 amaieran, 33. Zenbat eta arma gehiago egon, gordinagoa da gerra, eta larriagoak dira ondorioak. Gaur intentsitate handiko hamahiru gatazka armatu daude; urtean 1.000 hildako baino gehiago eragiten dituzte. Europara iristen ari diren pertsonak guk finantzaturako gerra batzuetatik ihes dabilta: gatazkarik egon ezean, ez lukete ihes egingo. UNHCR-ren arabera, 68 milioi pertsona baino gehiago lekualdatu dira, baina milioi bat besterik ez da iritsi Europara. Beste 67 milioiekin zer gertatu den? Ikusezin egin dituzte. 40 milioi inguru herrialde barruko lekualdatzeak izan dira"

(MONICA VEGA, BANCA ARMADAKO KIDEA)

"Ez dago uzta txarrik; uzta guztiak dira onak, bai ardoarenak bai sagardoarenak. Urtero kopla bera entzuten dugu: 'Aurtengo uzta paregabea da, nortasun handikoa'. Urtero lelo bera entzuten dudanean, alderdi politikoan hauteskunde-programen gero eta antz handiagoa hartzen diot. Hutsezintasun hori, urte txar bakar bat ere ez egotea... Are gehiago azken urteotan izan dugun eguraldi aldrebesarekin. Gainera, azken aldian sagardoaz ari direnean, badirudi ardoaz ari direla. Aurtengo uztak erregalaz, masusta eta bainila lurrinak dauzka, lore usaina, retrogustoa eta bouketa. Prezioan ere parekatuko dira!"

(ARITZ GORROTXATEGI, ZUTABEGILEA)

Eibartarrak San Blas opillak bedeinkatzeko ohittuari eutsi detse

Domekan San Blas eguna izan zala eta, eibartar mor-
duak jarraitu zetsen opillak eleizan bedeinkatzeko
ohittuari. Hori dala eta, herriko eliza guztietan sanbla-
sak bedeinkatzeko mezak ospatu zittuen. **San Andres**
parrokian eguadiko mezia hasi aurretik bedeinkatu zi-
ttuen opillak eta, elizatik urtetzian, askok pareko esku-
turekin batera argazkixa egitteko aprobetxau eben. **Azi-**
ttaiñen be jende mordua alkartu zan parrokian, san-



blasak bedeinkatzeko goizian egindako mezan eta, opi-
llak ez eze, ogixak, frutak, kordelak eta kandelak be
eruan zittuen bedeinkatzera. Bestalde, parrokixako ar-
duradunak aditzera emon dabenez, mezia amaittu eta
jarraixan egindako erretratuak jaso nahi dittuanak horre-
tarako aukeria izango dau datorren astetik aurrera, Ikatz
argazkidendara juan eta han eskatuta.

Zahartziaren inguruko negozio-aukerak sustatuko dittue Debegesan

Debegesa Garapen Agentziak "Debabarrena eraldatzen: ne-
gozio aukerak zahartzearen arloan" egitasmo barrixa ipiñi dau
martxan, "biztanlerixaren zahartziaren erronkari heldu eta jardue-
ra ekonomikua sustatzeko eta herritarren bizi-kalidadia hobetzeko
aukera gisa ekiteko asmuarekin". Proiektua Gipuzkoako Foru Al-
dundiko Ekonomia Sustapeneko, Landa Inguruneko eta Lurralde

Orekako departamentuak diruz lagundu dau eta, diñuenez, bat da-
tor Adinberri zahartze osasuntsurako foru estrategixarekin.

Proiektuak, lehen fase batian, lankidetzara sare bat osatzia dauka
helburu. Arduradunen berbetan, "sarea askotariko eragilliak osa-
tuko dabe: enpresak (industria, IKTen sektoria...), inplikaturiko era-
gilliak (Udalak, zaharren egoitzak, eguneko zentruak, etxerik-etxe-
ko laguntza zerbitzuak...), osasunarekin loturia daken erakundiak
(Debabarrena ESI), Lanbide Heziketako ikastetxiak, teknologixa-
zentruak... Bere eginkizuna, bestalde, gizarte-laguntzarako eta in-
dustria zein teknologixa garapenerako jarduerekin lotutako gara-
pen ekonomikorako duguaz aukerak identifikatzia litzake".

Proiektua abiatu dabe, Debegesak urtarrillaren 22xan Debaba-
rrenian zahartziaren esparruan biharra egitten dabon hogei bat
eragille alkartu zittuan eta, horrekin batera, Debabarreneko Uda-
lekin eta Debabarrena ESIrekin be egin dittue billerak. Juan An-
gel Balbas Debegesako zuzendari nagusixaren berbetan, "Silver
Economy dalakuak eskualdeko enpreseri dibersifikaziñorako au-
keria eskintzen detse".



Egogaiñekuen burrukiak segitzen dau

Aurreko astietan egindakuaren bidetik, aste honetan
be mobilizaziñuak egin dittue Egogain Gerontologia
Zentruko bihargiñak. Iazko azaruan hasi eben borrokaldi-
xaren harira, Eibarko EH Bilduk "babes osua" azaldu nahi
detse. Bilduko ordezkariaren berbetan, "lan baldintza dui-
ñak eskatzen dittue, bertako egoiliarak bihar dan moduan
zaindu eta tratatzeko. PNV eta PSEren Aldundiak hainbat
murrizketa gauzatu nahi dittu, bihargiñen lan baldintzak
murriztuko dittue eta egoiliarak zaintza duin bat eskura-
tzeko eskubidia be arriskuan ipiñiko dabe".





Inaki Mezquita



Egoitz Aizkora

Otsailak 9, larunbata
Mendi ibilaldia (9 km)

10:00etan,
Itziarko frontoian

Mendiko hezeguniak ezagutzeko urteeria egingo dabe bixar

Hezeguneen Munduko Egunaren harira, Euskal Kostaldeko Geoparkeak mendi urteera gidatua antolatu dau bixarko, Aranzadi Zientzia Elkartearen laguntasuna-rekin. "Geoparkeko mendiko hezeguneak, bide ondoko oasi ezezagunak" izenburuko ekursiñuakin Geoparkeko mendialdeko hórrek hezegune bereziok zenbat balixo daben emon nahi dabe ezagutzera. Ibillaldixa Aranzadi Zientzia Elkarteko bi kidek gidatuko dabe. Itziartik abiatuko dira eta Artutzan eta Urritzuko putzuak eta bertako bioaniztasuna ezagutzeko aukeria izango dabe parte-hartzailliak.

Jardueria famelixa osuarendako pentsautakua da. Itziarren amaittuko da, kopau batekin. Gaiñera, gaztiendako oparixa egongo da. Parte hartzia duan da eta azalpenak euskeraz emongo dittue. Hitzordua goizeko 10:00etan jarri dabe, Itziarko frontoian. Parte hartu nahi dabenak aurretiaz izena emotia eskatzen dabe antolatzailliak, ingurumena@geoparkea.com helbidera idatzitta.

asteko
678
datua

Gizarte Larrialdiko Laguntza eskaerari erantzun zetsen Eibarko Udalak 2018. urtian eta 488.277 euro erabili zittuen horretarako. 2016xan emondako dirulaguntzak 452 izan ziran; eta 2017xan emondakuak 606 (485.229 euro).

autuan

ALKARRETARATZIA

Gure Esku Dagok deittuta, Kataluñiarekin alkartasuna azaltzeko alkarrataratzia egingo da martitzenian, "Elkartasuna aterpe. Konponbidea, democracia, llibertat" goiburuari jarraituta, 19:00etan hasitta Untzagan.



AURREKONTUARI OSOKO ZUZENKETIA

Eibarko Irabazik aditzera emon dabenez, udal aurrekontuari osoko zuzenketia egingo detsa, gobernu taldiak etxebakuendako aterpetxia martxan ipintzeko konpromisorik hartu ezian. Aterpetxia taldiaren proiektu nagusiña da eta ez detsala uko egingo berretsi dau.

Funeraria-Ehortzetxe Mugica

EIBAR **ELGOIBAR**

Beilatokia Funeuskadi Eibar: Otaola, 27

Beilatokia: SIGMA Industrialdea (Olasoko hilerriaren ondoan)

Bulegoa Eibarko erdialdean

Bulegoa Bidebarrieta, 20

24 orduko zerbitzu iraunkorra

943 20 19 51 www.funeuskadi.com

Euskadiko Lehen Ehortze Taldea **GRUPO Funeuskadi**

EIBARKO HIZKUNTZA ESKOLA OFIZIALA

Jardiñeta, 3
20600 Eibar

MATRIKULA LIBREA
Otsailaren 4tik 21era
13:00ak arte

ALEMANA, FRANTSESA eta INGELESA: A2, B1, B2 eta C1
EUSKARA: A2, B1 eta B2

MATRIKULA EGITEKO:
www.eoieibarheo.hezkuntza.net

ARGIBIDE GEHIAGO: eoieibarheo@gmail.com
943.20.06.18

herriko kaleei begirada



ELGETA KALE

egilea:
 ELENA LARRAÑAGA

Dibujo Eskolarekin elkarlanean



Berogailu batek eragin eban Bittor Sarasketa kaleko keia

Martitzen arratsaldian, 18:30xak aldera Bittor Sarasketa kaleko Beistegi eraikiñetik keiak urtetzen zebala ikusitta, eta gaiñera erre usaiña eguanetz, suhiltzaillieri abisua emon zetsen, eraikiñian sua ixotu zala pentsauta. Halanda be, zorionez ez zan ezer larririk gertatu: lekukuak esandakuaren arabera, Musika Bandakuak ensaiuetarako erabiltzen daben lokalian "pellets" berogailua piztera juan ziranian horrek eztanda egin eta horrek eragin eban keia. Halanda be, badaezpada suhiltzailliak barrura sartu ziran, juan aurretik dana ondo eguala baieztatu eta arriskurik ez eguala ziurtatzeko.

Miguel de Aginaga plazia barriztatuko dabe

Udaletik jakiñarazi dabenez, Txaltxa Zelai eta Eibarko Txikito kalien artian irla baten modura dagan plazatxua goititik behera konponduko dabe. Horretarako biharrak lehiaketara etara eta gero, Obras Especiales Proyectos e Infraestructuras enpresakuk lortu dabe obraren arduria. Biharrak 193.660 eurotan (BEZa barne) adjudikatu dittue eta biharrak egitteko 12 asteko epia eukiko dabe. Bestiak beste, zoladura barriztatuko dabe eta plaza



azpizan daguazen udal lokaletan daguazen hezetasun-arazuak konponduko dittue. Lan honek iazko udal aurrekontuaren inguruko negoziaziñuan Eibarko PSE-EEren eta EAJ-PNVren artian adostutakuen emaitza dira.

Jabetze Eskolako ikastaruetarako izen-emotia zabalik dago

Jabetze Eskolakuak udaberrikan egingo diran ikastaruen barri emon dabe. Matrikulaziño-epia martxuaren 7ra arte egongo da zabalik. Izen-emotiak Andretxean (13:00ak aurretik) edo Pegoran (14:30xak aurretik) egin ahal izango dira. Honek dira daguazen aukerak: "Conociendo tu móvil", "Caminemos juntas: taller de alpargatas", "Me pones... flamenca: taller de comunicación", "Ekin autodefensa feministari", "Viaje a mi casa interior: ¿Qué necesito para ser feliz? eta "Gure buruaren jabe". Informaziño gehixagorako: eibar.eus/eu/berdintasuna-andretxea.



Santa Agedari eskindutako koplak bete zittuen kaliak astelehenian

Urteroko ohitturiari jarraituta, astelehenian, Santa Ageda bezperan herriko hainbat taldek kalera urten eben santaeskian, Sizilian jaixotako martiriaren ome-nezko koplak kantatzen.

Goizian ikastetxiak izan ziran protagonista: batzuk eskolan bertan ibilli ziran kantuan eta beste batzuek, barriz, kalera urten eben Santa Ageda koplak abestera, parian topau genduazen Urkizu herri ikastetxeko ikasliak, esaterako.

...eta kitto! Euskara Elkartearen eskutik egin zan kalejirarako oso talde politta alkartu zan eta, Musika Es-

kolako Marisol Arrillaga soiñujoliak, ikasliak eta Eibarko Kantuzaleak taldekuak lagunduta, kalejiran ibilli ziran Urkizu inguruan. Amaieran, gaiñera, euskera alkartiaren egoitzan txokolate berua eta txorizo egosixa jan zittuen.

Kaleetan Kantuz taldekuak be Urkizutik abiatu ziran santaeskian eta, Untzagarako bidian, hainbat geldialdi egin zittuen, koplak kantatzeko.

Eta **Sostoa** abesbatzak, barriz, 19:30xetan ekin zetsan Santa Ageda bezperako kalejirari, Ego Gain kalia, Eibarko trikitilarixak lagunduta. Urtero lez, Urkizun amaittu eben ibilbidia.





Iñaki elortza

“Jan dezagun txuleta bat ardo piskat batekin eta, postrean, San Blas goxogoxo zati on bat. Baina jakin dezagun gure buruari kalte egiten ari garela”

Gortasun selektiboa

Lanean lasai-lasai nengoela freskagarri bat hartzea bururatu zitzaidan. “Latak” gorriak izaten ditu eta “zero” edo azukre gabeko formatukoa zen nik aukeratutakoa. Halako batean paziente batek zanga-zanga harrapatu ninduen eta hona etorri zen bere errieta: *Iñaki! Baina zer egiten duzu zuk hori edaten? Hori pozoa da!* Ni piska bat lotsatu nintzen, baina arnasa berreskuratu nuenean odola irakiten jarri zitzaidan; eta berriro ere harrituta geratu nintzen gizakiok nahi duguna ulertzeko eta ondorio interesatuak ateratzeko dugun gaitasunarekin.

Elikagai bat kaltegarria dela entzuten dugunean, gure interes arabera ateratzen ditugu ondorioak. Edari alkoholikoak minbiziarekin erlazionatuak daudela askotan esan digute, baina horri ez diogu garrantzirik emango... denok edaten dugu... betidanik egiten den gauza horietako bat da... Azukrea ere gaixotasun askorekin lotzen da, gizentasuna, diabetesa... OMS-en azken

aholkuen arabera, ahalik eta gutxien kontsumitzea gomendatzen dute. Baina hori ere ez zaigu axola... zer da bizitza kapritxorik gabe? Ospakizun bat, gozo gabe? Haragi prozesatuak ere kolon minbiziarekin erlazionatuak daudela frogatu da, baina horrek ere bost axola!!!! Gora hanburgesa! Eta zer esan tabakoari buruz? No koment.

Hori bai! Arraindegian zain nengoela, pertsona bati entzun nion interneten irakurri zuela edulkoratzailerik agian osasunerako kaltegarriak zirela, patatin patatan... Horri bai! Horri jarriko diot arre-ta! Sinesgarritasuna eman eta nire kontzientzia lasai utzi: ez dut edulkoratzailerik hartuko, beraz, osasuna zaintzen ari naiz!

Goza dezagun lasai bizitzako plazerrekin, baina ez dezagun gure burua engainatu... Jan dezagun txuleta bat ardo piskat batekin eta, nola ez, postrean **San Blas** goxo-goxo zati on bat, baina jakin dezagun gure buruari kalte egiten ari garela. On egin!



Leire narbaiza

“Etxeko buzoia zabalduakuan jaso dodan merkatu plazaren inguruko alkatiaren partiduaren propagandia adar jotze hutsa begittandu jata”

Errebal, adar-jotze galanta

Errebal kalian obretan, eta hoge aparkaleku, gitxienez, kendu dittue. Inguru horretan lehen be aparkatzaia gatxa bazan, oin itzela da. Kotxiarekin buelta batzuk emon ostian, sutan jarri, eta horretaz idaztia pentsau dot, herriko zonalde horren abandonua azaltzeko.

Baiña etxeko buzoia zabalduakuan, gaixari beste buelta bat emon detsat, jaso dodan alkatiaren partiduaren propagandia adar jotze hutsa begittandu jatalako.

Merkatu plaziaren kontuak hamaika urte pasatxo daroiaz gure artian. Hamaika urte porrotik porrot. Frankismoko presuak egindako eraikiña bai ala bai bota bihar, porlanaren erresuman bizi garalako, eta megaproiektu bat (orubian kabidu be egitten ez zana) eraiki, marka komertzial handien mesedetan, denda txikixen kaltetan.

Horretarako guztiorretarako, merke saldu zan terrenua. Danon ondaria esku pribatuetara pasau. Bittartian, eraikitzaillik erreki jo, eta udalak orubia erosi bihar. Atzera be dirua galdu.

Krisi betian, zentzunik be ez zekanez, auzokidieri galdetu zetsen ia proiektuakin zer egin. Jakiña, auzokuak espaziak bihar zirala esan zeben. Udalak eurenari eutsi arren, gerora ukatu egin, eta megaproiektua ahaztu zeban.

Lizitaziñua etorri zan, eta bazirudixan zeozerk urtengo zebala txolopote horretatik. Baiña ixa Australiaraiño zulatu ostian, Oteizaren hutsa geratu jaku, eta ez orixotarraren eskultura urdiña! Ez daka dirurik lizitautako enpresiak, eta diru gehixago eskatu! Obrak geldirik, eta udalak kendu lizitaziñua.

! ? ikurrak bentanetan agertu, eta arrapataka, magia! Apirillian barriro be obrak hasiko ei dira, alkatiak bere partiduko propagandan azaldu deskun arabera. Kasualdadia, elektiñuen aurreko hillian! Zertan egon dira oin arte?

Desastre galanta, hamarkada bateko abandonua, eta haustes-kunde aurretik ustezko konponbidia. Beti bardin ibilli bihar ete dira? Kokoteraiño!

Eibarren, Jambolen bezala

Nikolai izena dutenei Kolyo esan ohi zaie Bulgarian modu informal edo maitekorrean. Gure bizilagunaren izena, ordea, Kolyo da ofizialki. "Aitxitxa ere horrela deitzen zen eta berarengatik jarri zidaten izena". Kolyo Dikov Kolev ("ev amaiera jartzen zaie abizenei Bulgarian") 2016an iritsi zen Eibarrera, 2000. urtetik Madril eta Valladoliden bizi eta gero. Berehala gustatu zitzaion Eibar, bere jaioterriaren antza duelako, eta ez dauka beste toki batera joateko asmorik.

Trantsizio latza

Jambol izeneko hirian jaio zen Kolyo, Sofia (Bulgariako kapitala) eta Itsaso Beltzaren artean, "Sofia eta Burgas batzen dituen autobidearen erdian". Hiri industrialia da, "industria oso ona gainera", eta 90. hamarkadaren hasieran 90.000 biztanle inguru zituen, baina gaur egun 70.000 pertsona bizi dira. "Sobietar Bata-sunaren orbitatik hurbil zeuden herrialdeen merkatua azkar de-segin zen 90. hamarkadan eta, ondorioz, produkzioa asko jaitsi zen eta enpresa askok atak itxi behar izan zituzten". Trantsizioa deitzen diote sasoi horri. Kolyok lan egiten zuen enpresak ere produkzioa jaitsi zuen eta beste zerbait bilatu behar izan zuen. "Aitak lurrak zituen eta berarekin lanean ibili nintzen, baina gauzak ez zi-

ren ondo irten eta Bulgariatik alde egin nuen".

Gurasoak Madrilera, alabak unibertsitatera

Bulgariatik Madrilera joan zen Kolyo, eta emaztea eta alaba biak Jambolen geratu ziren alabek ikasketak amaitu ahal izateko. "Gero, nagusia Dortmundeko (Alemania) unibertsitatera joan zen eta gazteena Bristolera (Ingalaterra)". Emaztea Kolyorekin bildu zen Madrilera eta Valladoliden ere pare bat urte egin zituzten. Bikoteak gogor egin zuen lan alabek ikasketak ordaintzeko, "baina emazteak minbizia izan zuen eta hil egin zen". Gaur egun alaba biak Alemanian bizi dira, baina Gabonetan eta udako oporretan eurekin egoteko aukera izaten du Kolyok. "Gainera, alaba zaharrena Donostiarekin maiteminduta dago aspaldi, ni Euskal Herrira bizitzera etorri baino lehen, eta aitzakia ona da hona bisitan etortzeko".

Zilindro hidraulikoen zirkulua ixten

"Zilindro hidraulikoak egiten hasi nintzen lanean eta berdin



Bizitzeko toki egokia aurkitu du Kolyok Eibarren. Ekhi Belar

amaituko dut". Bulgarian hasi eta Eibarren itxiko du zirkulua Kolyok, Mallabiko Larzep enpresan. Madrilera lanean zegoenean enpresak Mallabira pasatu zuen produkzioa eta hona etortzeko aukera eman zion Kolyori. "Maleta egin eta berehala etorri nintzen". Euskal Herriko paisaia eta klima oso gustoko ditu, "nire herrialdearen oso antzekoak dira", eta Jardinetan kalean pozik bizi da bere bikotearekin. "Mendia ikusten dugu leiho-

tik, toki lasaia da eta lantokitik hurbil dago".

Bulgariako etxea zaintzen

Bulgariako beste lankide batekin etorri zen Kolyo Eibarre-ra eta oso harreman ona dauka herrian ezagutu duen jendearekin. Bestetik, udan Bulgariara joaten da urtero. "Alaba zaharrenaren familiarekin joaten naiz, itsasertzean daukan etxera. Nire etxea ikustera joaten naiz baita ere, inor bizi ez denez konponketak egin behar direlako". Aldiz, Kolyok ez dauka hara bizitzera itzultzeko asmorik, "oporretan bakarrik". Ondo ohitu da hemengo bizimodura. "Jatorri kristaua dugu guk ere, eta nahiz eta gu ortodoxoak izan, antzera ikusten dugu bizitza".

Dobär den

"Egun on"

BIXENTE MARTINEZ (musikaria):



“Berbarik gabeko bertsoak sortu nahi izan ditugu”

- Noiz jo zenuen Eibarren azkenengo aldiz?

Ondo gogoratzen badut, orain dela hamar urte izan zen, Oskorrik eta Eibarko Musika Bandak eskaini genuen kontzertua.

- Beraz, zure jaioterrian jotzeko gogoz?

Bai, noski! Coliseoan jotzeko aukera sortu zenean asko poztu nintzen. Aspaldi negoen begiratzen zer egin nezakeen Eibarren jotzeko eta azkenean lortu da.

- Azaroan ‘Ur berri, urte berri’ diskoa kaleratu zenuen. Lan hori aurkeztuko duzue Coliseoan edo ‘Debalde festa’ diskoaren ildoan jarraituko duzue?

‘Ur berri, urte berri’ gabon kanten inguruko diskoa da, beraz, ez dauka zentzu askorik sasoi honetan horrelako abestiak jotzea. Gabonen inguruan landu dugu. Igelaren Bandaren proiektu berezia da, taldeko hiru kideez gain beste musikari batzuek hartu dutelako parte proiektuan. ‘Debalde festa’ lana taularatuko dugu Coliseoan, baina baita kantu berri batzuk ere.

- Bertsolariek erabiltzen dituzten doinuei dedikatutako diskoa da ‘Debalde festa’. Nola uztartzen dira bertsolaritzaren doinu tradizionalak eta jazz doinuak?

Igelaren Bandaren estiloa edo ideia beti izan da euskal kantu zaharretatik abiatu

Igelaren Bandak ‘Debalde festa’ diskoan landutako musika ekarriko du Coliseoan otsailaren 15ean 20:30ean. Hasier Oleaga, Amaiur Cajaraville eta Bixente Martinez eibartarrak osatzen dute taldea, eta bertsolariek erabiltzen dituzten doinuak jazzarekin uztartzen dituzte proiektu honetan. Hamar urteren ondoren bere herrian joko du berriro Bixente Martinezek eta, gainera, Izukaitz talde eibartarraren abestien bertsioak ekarriko ditu.

eta modu instrumentalean, inprobisazioarekin, jazzaren espirituarekin nahastea. Bertsolaritzak zerikusi handia dauka inprobisazioarekin eta oso aproposa iruditu zitzaigun bertso doinuak erabiltzea ‘Debalde festa’ lanerako.

- Doinuek garrantzia daukate bertsolaritzan, baina baita berbek ere. ‘Debalde festa’ lanaren kasuan, ordea, ez dago berbarik, instrumentala da. Musikaren bitartez berbekin esan ezin daitezkeen gauzak azaldu daitezke?

Musikak adierazten dituen sentimenduak ezin dira berbekin azaldu. Bestetik, gure gauza pertsonala da. Igelaren Bandako kideak ez gara abeslariak, espresatzeko dugun bidea ez da berba, musika baizik, eta hortik abiatu dugu gure estiloa. Berbarik gabeko bertsoak sortu nahi izan ditugu bertsoen doinuetatik abiatuz.

- Zuzenekoetan ere inprobisatu egiten duzue? Igelaren Bandaren kontzertu bakoitza ezberdina da?

Bai. Ideia edo abiapuntu nagusiak idatzita daude, baina inprobisaziora jotzen dugu kantuak garatzeko. Bertsolariek bezala egiten dugu. Gaia guretzako doinua da, baina egun bakoitzean gai berarekin bertso ezberdinak egiten ditugu.

- Aurretik landutakoa da hori ala momentuko inspirazioarekin irtetzen da?

Bertsolariek bezala lehenik landu eta, gero, irten egiten da. Badago ofizio parte bat. Zure burura datozen ideak momen-

“Musikak adierazten dituen sentimenduak ezin dira berbekin azaldu. Bihotzari eta sentimenduei ateratzen laga behar diezu zuzenekoetan”

tuan islatzen eta azaltzen jakin behar duzu. Zuzenekoetan, benetako momentuan, teoriak ahaztu eta bihotzari eta sentimenduei irtetzen utzi behar diezu.

- 'Debalde festa' laneko abestiez gain kantu gehiago joko dituzuela aipatu duzu. Zeintzuk?

Material berria lantzen dihardugu, beti ditugulako gauza berriak buruan, eta lzu-kaitz taldearen abesti batzuk jotzea polita izan zitekeela iruditu zitzaigun. Coliseoan joko genuela jakin baino lehen hasi ginen lzu-kaitzen kanta prestatzen, baina orain, kontzertua Eibarren izanda, aproposagoa ikusten dugu.

- lzu-kaitz taldeko kidea izan zinen. Nolako oroitzapenak dituzu?

Oso onak! Aspaldiko kontua da, oso gazteak ginen eta mundua zegoen gure aurrean. Ni ez nintzen lzu-kaitz taldearen sortzaileetako bat izan; Fran Lasuen, Odile Kruzeta, nire anaia Aurelio eta beste eibartar batzuk baizik. Bi disko grabatu eta kontzertuak eskaini genituen ilusio askorekin. Oso sasoi polita izan zen. Polita da ikustea, baita ere, lzu-kaitzek grabatutako kantuek freskotasuna eta balioa mantentzen dutela gaur egun ere. Akats teknikoak izan ditzakete, baina mamia zegoen eta interesgarria da gaur egun abesti horiek berreskuratzea.

- Bizitza laburregia izan zuen lzu-kaitzek?

Urte horietako esperientziak erakutsi dit jende gaztea ilusio handiarekin hasten dela musikaren arloan, baina bizitzan erabaki egin behar da: musikara dedikatu edo ez. Hor joan dira pikutara ez bakarrik lzu-kaitz, baizik eta talde asko, eta normala da. Musikaren mundua oso polita da kanpotik, baina zure ogia hortik lortu nahi baduzu, zailtasun puntu bat dago eta oso argi eduki behar duzu horretara dedikatu nahi duzula.

- Zuk musikaren aldeko apustua egin zenuen eta ibilbide oparoa egin duzu musikaren munduan. Oskorri eta Hiru Truku taldeetako kidea izan zara urte askoan, Igelaren Bandan zabilta orain, baina beste proiekturik badaukazu esku artean?



Hasier Oleaga, Bixente Martinez eta Amaur Cajaravillek osatzen dute Igelaren Banda.

Igelaren Bandak asko betetzen nau. Dantza taldeekin eta antzerki taldeekin musikak egiten ditugu, besteak beste. Ofizio honetan erreza da lana topatzea, hain erreza ez dena da lan horregatik sosak ateratzea.

- Ez daitezela beste hamar urte pasa behar Eibarren berriz kontzertua eskaintzeko.

Espero dut ezetz! Eibarren beti egon da musika gustoko duen eta jakin-mina duen jendea. Guk egiten duguna jende gutxik egiten duela uste dut, gauza ezberdina da,

“Ofizio honetan erreza da lana topatzea; hortik sosak ateratzea ez hainbeste”

eta nahiz eta gure kontzertua ikustera datozen batzuek zer ikusiko duten jakin ez, harritu egingo direla eta pozik irtengo direla uste dut.



M^a ANGELES ARRIZABALAGA BILBAO

2019ko urtarrilaren 29an hil zen

**ZURE MAITASUNA ETA IRRIFARREAREKIN GERATZEN GARA.
BETI GOGOAN IZANGO ZAITUT, AMATXO!**

Familiaren izenean, eskerrik beroena gure nahigabeen lagundu diguzuen guztioi.





PERIKO IRIONDO: "Txonta errekaen indar bizia".

Javier Ziaranek eta Guillermo Argentek urteak daramatzate Eibarko kaleak eta eibartarrak zaintzen, baina azken hilabeteotan Udaltzaingoaren barruan egon diren aldaketekin sasoi berria hasi du herriko segurtasun-zerbitzuak. Jubilazioak eta toki aldaketak egon dira langileen artean, eta udaltzain berriak hasi dira lanean. Trantsizio sasoia bizi du Udaltzaingoak, aro berri baten hasiera.

Aurpegi berriak Eibar zaintzeko

Jon Kruzelaegi hilabete hasieran jubilatzen zen eta Javier Ziaranek hartu du bere tokia Eibarko Udaltzaingoaren buruan. Behin-behineko kargua dauka, Udalak plaza finkoa ateratzeko asmoa duelako. *"Jubilatzeko adina aurreratzeko dekretua irten zen"*, azaltzen digu Ziaranek, *"eta 60 urterekin erretiroa hartzeko aukera daukagu"*. Guztira bederatzi udaltzain jubilatzen dira azken hilabeteotan eta beste bi, oposaketetan plaza lortu ondoren, Bilbora joan dira. *"Toki horiek betetzeko lau udaltzain etorri dira eta plaza finkoa izango duten beste bost ditugu Arkauten oinarrizko ikastaroa egiten"*, dio Ziaranek. Uztailean amaituko dute ikastaroa eta iraila inguruan hasiko dira beharrean. Azken hilabeteetako aldaketak nabaritu dituztela esaten dute Ziaranek eta Guillermo Argente udaltzain buruordeak. *"Nahiko justu gabiltza, jende berria ekartzeko begira"*, Ziaranen berbetan.

Urtarrilean hasi ziren lanean lau udaltzain berriak eta egokitze-prozesuan daude orain. Guztira 37 udaltzain daude Eibarran, baina Euskal Autonomi Erkidegoko Administrazioako sailletako eta erakunde autonomoetako lanpostuen zerrenden (RTP) arabera 48 izan beharko lirateke. Gaur egungo langileen artean 18 udaltzainek postu finkoa dute eta besteak bitartekoak dira.

Trantsizio-prozesuan dago Eibarko Udaltzaingoa. Izan ere, esperientzia handiko udaltzainak galdu ditu eta hori ez da inongo akademiatan ikasten. *"Ez dugu kantitate bakarrrik galdu, baita kalitatea ere"*, dio Ziaranek. *"Gaueko txanda beti izan da finkoa eta gauean dabiltzan bost udaltzai-*

**"Ez dugu
kantitatean
bakarrrik galdu,
kalitatean ere
atzera egin dugu"**



Guillermo Argente udaltzain buruordea eta Javier Ziaran udaltzain burua.

nek lana utzi dute, hau da, txandaren erdiak baino gehiagok". Ziaran eta Argenteren ustez denbora kontua da, udaltzain berriek poliki-poliki hartuko dutelako esperientzia. Bestalde, lantaldearen berritzeak aukera berriak ekarriko dituela uste dute. *"Jende berriarekin, gauzak ondo eginez gero, 2-3 urte barru zerbitzua asko hobetu dezakegu"*.

Justifikazio gabeko alarma soziala

Trafikoa da Udaltzaingoak duen arazo nagusia. *"Betidanik egon den arazoa da, historikoa"*, Ziaranen berbetan. Udaltzain buruaren iritzi ohitura kontua da kasu askotan, *"edozein tokitara kotxez mugitzen garelako"*. Errekatxu eta Arane arteko errepidean gertatu zen lur-jausiaren ondorioz, adibidez, bidea hilabete egongo da itxita eta horrek trafiko arazoak sortuko ditu. *"Asteburuetan batez ere"*, dio Ziaranek, *"erdigunea itxita egoten denez, askok bide hori hartzen dutelako"*.

Herrian lapurreta kopurua hazi dela zabaldu da sare sozialetan azken asteotan. Udaltzaingoaren ustez, ordea, zurrumurruak besterik ez dira. *"Estatistikak kontuan hartzen baditugu, ezin da esan lapurreten inguruan igoerarik egon denik"*, dio Ziaranek. Beraz, sare sozialetan sortu den alarma sozialak justifikaziorik ez duela uste dute biek. *"Lapurreta kasuetan Ertzaintzarekin elkarlanean gabiltza eta, esan digutenez, azken asteotan egon diren lapurreten egileak ezagunak dira eurentzat"*, esan digu Argentek.

Ziaranentzat Eibar hiri segurua da. *"Segurtasun absolutua ez da existitzen, baina antzeko tamainako herriak kontuan hartuta, Eibar segurua da"*. Atzera begira, orain dela pare bat hamarkadako Eibarrekin alderatuz, egoera asko aldatu dela uste du Ziaranek. *"Auto-pilaketa handiak zeuden, drogaren arazoa zegoen, delinkuentzia, giro politikoa pil-pilean zegoen... denetarik"*.

Eneko Rivero (e-sports jokalaria)

“Zuzeneko txapelketa baterako sailkatzea gustatuko litzaidake”

Berdegunetik bideo-jokoetara egin du jauzi Eibar KE-k. Gorriurdinek e-sports taldea daukate eta hiru bideo-jokotan (*Rocket League*, *Clash Royale* eta *FIFA 19*) lehiatzen dira jokalaria. FIFA 19-an jokatzen du Eneko Riverok (Resire). 16 urte ditu eta ohore handiz defendatzen ditu Eibar KE-ren koloreak eta joysticka uzten duenean eskubaloian egitea du gustoko.

- Resire da zure ezizena e-sportsen munduan. Zergatik Resire?

Aitak asmatu zuen izena. Txikiagoa nintzenezan Play Station 3 kontsola neukan, baina hasieran ez nekien konturik zabal-tzen eta aitak egin zuen. Izena jarri behar zen eta *Resire* jarri zuen.

- Eibar KE-ko e-sports taldeko kidea zara. Nola etorri zitzaizun aukera?

Eibarrek jokalariai aukeratzeko lehiaketa antolatu zuen (draft) iaz eta azpitxapel-duna izan nintzen. Sanandresetan deitu zidaten Eibar KE-ko e-sportseko kidea izan nahi nuen galdezka eta demaseko ezustekoa izan zen.



- Fobal taldekoekin egiten den antzera, zuri ere fitxa ordaintzen dizute?

Bai, soldata txiki bat daukat.

- Zein da zure lana e-sportseko jokari moduan?

Astean sei ordu jokatu behar ditut, baina gehiago jokatzen ditudala uste dut, nahi dudalako.

- FIFA 19 bideo-jokoko jokalaria zara. Zein txapelketetan lehiatzen zara?

Espainiako txapelketak jokatzen ditugu. Bederatzi sailkapen-txapelketa daude eta lehiaketa horietan puntu gehien lortzen dituzten hamasei jokalariai zuzeneko-txapelketa batera sailkatzen dira. Lehiaketa horretan kanporaketak egiten dira finalera arte. Bestetik, sailkapen-txapelketa bakoitzean geratzen diren lehenengo lau jokalariek ere zuzeneko-txapelketa jokatzen dute.

- Zer moduz doa zure denboraldia?

Hiru sailkapen-txapelketa jokatu ditugu, eta Gravesen izeneko jokari batek bi irabazi ditu eta Zidanek bat. Lehenengo txapelketan lehen kanporaketa pasatu nuen eta bigarrenengan, wifi arazoak egon zirenez, egun bat atzeratu behar izan zuten lehia. Hurrengo egunean eskuan mina hartu nuen eskolan eta medikoarengana joan behar izan nintzen. Bost ordu egon nintzen larrialdietan eta ezin izan nuen partidua jokatu. Bigarren txapelketan bigarren kanporaketa galdu nuen penaltietan; eta



hirugarren txapelketan, hirugarren kanporaketa, 89. minutuan jasotako gol bategatik kanporatu ninduten.

- Etxean jokatzen duzu?

Bai, baina [twitch.tv/sdeibar_esports](https://www.twitch.tv/sdeibar_esports) webgunean eta SD Eibarren YouTube kanalean jarraitu daitezke partiduak. Gainera, esatari (caster) batek ematen ditu partiduak.

- Ipuruan jokatzeak aukera izan duzu?

Bai, joan den egunean Marko Dimitrovic atezainarekin berba egitera joan nintzen eta Marc Cardonari erronka botan nion, nonbait ikusi dudalako *FIFA 19*-an ona dela.

- Zein da zure helburua e-sportsean?

Zuzeneko-txapelketa baterako sailkatzea gustatuko litzaidake, baina lan handia egin behar dut oraindik.



MANUEL URÍAS OLABARRIA

I. urteurrena: 2018-11-5

“Inoiz ez zaitugu ahaztuko. Betiko gure bihotzetan”

ETXEKOAK

Bere aldeko URTEURREN MEZA ospatuko da hilaren 10ean (domekan), 12.00etan hasita, San Pio X. elizan.



Datorren egunean egingo da

IKASENPRESA AZOKA

Atzo goizean aurkeztu zuten udaletxean otsailaren 14an Eibarren egingo den VIII. Ikasenpresa Azoka. Ekitaldian Alberto Albistegi Garapen Ekonomiko eta Enplegu zinegotziak, Iñaki Mujika Tknikako zuzendari exekutiboak, Pili Diez Tknikako Ekintzailetza eta Berrikuntza dinamizatzaileak eta Debabarreneko Lanbide Heziketa zentruetatik etorritako hainbat ikasle eta irakaslek hartu zuten parte.

Euskal Autonomia Erkidegoko Lanbide Heziketako ikasleek sortutako zerbitzu eta produktuak ezagutzera emateko asmoz egiten den Ikasenpresa Azokaren 8. edizioa datorren astean, egunean, egingo da, 10:00etatik 13:00etara bitartean, Untzagan eta Txaltxa Zelaian asmo horrekin ipiniko dituzten karpetan. Tknikak antolatzen du Ikasenpresa Azoka, Eibar-ko Udalaren eta Eibarko Oinarrizko Lanbide Heziketarako Udal Institutuaren laguntzarekin.

Lanbide Heziketako ikasleen artean kultura ekintzailea bultzatzeko asmoarekin garatzen den heziketa proiektua da Ikasenpresa, eta horren harira antolatzen dute urtero azoka. EAE osotik etorriko diren 2.000 ikasle inguruk hartuko dute parte Ikasenpresa Azokan, 380 bat ikasenpresarekin. Azken urteotako bideari jarraituz, ikasleek aurkeztuko dituzten artean aniztasuna izango da nagusi: "Lanbide Heziketaren barruan 23 familia-pro-



fesional daude eta, beraz, azokan denetarik ikusi ahal izango da: osasun arloari lotutakoak, kimikaren ingurukoak, arotzeria, merkataritza, ileapaindegi eta estetika arlokoak...".

Iñaki Mujikak azaldu zuenez, "euskaldunak, beste batzuk moduan, aurretik ere ekintzaileak izan gara, sarritan derrigortuta, eta ekintzailetasuna da, hain zuzen ere, ikasleek lantzen dutena. Lanbide Heziketa ziklo guztietan ekintzailetasunaren inguruko modulo bat dago eta Ikasenpresak modulo hori beste modu batean lantzeko aukera ematen du".

Aurkezpenean esan zutenaz, orotara 81 ikastetxetan garatzen ari dira Ikasenpresa ereduak. Oinarrrian dagoen metodo-

logia guztiz praktikoa da: Lanbide Heziketako ikasleek enpresa txikiak sortzen dituzte Ikasenpresan eta enpresa horiek sortzeko beharrezkoak diren ekintzak garatzen dira. Besteak beste, irudi korporatiboa sortzen dute eta administrazio, marketing eta salerosketa arloak lantzen dituzte. Ikasleen produktuak benetakoak izaten dira, eurek sortu edo banatutakoak, datorren asteke Azokan ondo ikusi ahal izango den bezala. Egitasmoa martxan jartzeko orduan aholku eta laguntzak jasotzen dituzte ikasleek, nondik nora joan eta zein arlo jorratu behar duten argiagotu edukitzeko. Horren harira, irakasleek egiten duten lana eta izaten duten inplikazioa azpimarratu zituzten.

· Eibarren egindako markak

· Moda

· Etxeko osagarriak

· Yoga:
"Yoga + Jarrera-Adimena"
"Jarrera berregokitzea"

· Pilates Essential:
"Lur eta aireko fusioa"

· Urtebetetzeak

· Formakuntzak

· Dastatzeak

· Hitzaldiak

· Ekitaldi korporatiboak

Eta askoz gehiago!

hello@helmethouse.es
943 849 310

BLAS ETXEBERRIA 1,
COLISEO ONDOAN!

helmet house
CONCEPT STORE

@helmethousestore

moments with a story behind


Joan den astean argitaratutako datuen arabera 27.600 biztanle ditu Eibarrek. Azken urteotan antzeko zifretan ibili da biztanleria kopurua, baina beti ez da horrela izan. 1900. urtetik gaur egunera arte herriko biztanleriak izan duen bilakaera aztertu dugu eta Itziar Sapsootham geografian lizentziatuak bilakaera horren gakoak eman dizkigu historiako momentu zehatzak azpimarratuz.

1900. aurretik datu solteak daude. Erdi Aroko batzuk, XVIII. mendeko besteren bat... baina ez dira esanguratsuak.

"1887an 5.013 biztanle zituen Eibarrek. Armak kanpoko merkatuetara zabaldu zirenez, biztanleria hazten zegoen". (58. orrialdea)

GARCÍA MANRIQUE, E. (1961) *Eibar: Inmigración y Desarrollo Urbano e Industrial*. Zaragoza: Librería General. (Departamento de Geografía Aplicada del Instituto Elcano)

Biztanleria Eibarre



Gerra Zibilaren aurreko etapan:

1900-1910: aurreko mendearekin alderatuz, goradaka handi bat agertzen da, gehien bat Bizkaia eta Gipuzkoatik etorritako etorkinengatik, baina baita Araba, Errioxa eta Nafarroatik etorritakoengatik ere, toki hauetako ardogintza produkzioan filoxerak ekarri zuen izurriteengatik.

1910-1920: I.Mundu Gerraren ostean, armen eskaera jaitsi egin zen eta honek krisi gogorra ekarri zuenez, populazioaren gorakada ia hutsa izan zen.

1920-1930: Aurreko hamarkadako egoera berdinarekin segitzen du eta Eibarko enpresak, bizikletak eta josteko makinak (besteak beste) ekoizten hasten dira. Aldaketa esanguratsua izan zenez, hasierako urteak gogorak izan ziren. Inmigrazioa eten egiten da.

1930-1934: Aurreko egoera berdina.

Gerra Zibileko biztanleria, gerra aurretik eta ondoren:

1934: 13.431 biztanle.
1937: 9.126 biztanle.
1939: 9.881 biztanle.
1940: 11.772 biztanle.

4.000 lagunek ihes egin zuten eta hurrengo urteetan herria berriz altxatzeak (obrak burutzeko eta enpresak berriz martxan jartzeko) inmigrazioa igo arren, Eibarko biztanleria ez zen gerra aurreko datuetara bueltatu **1944-1945.** urtera arte.


1945. urtetik aurrera populazioak berriz gorantza egiten du. Espainiatik bizikletak, josteko makinak eta, batez ere, burdinezko erramintak eskatzen dituzte, eta Eibarko biztanleriak ezin du lan-karga guzti hori jasan. Urte hauetan hainbat deialdi egiten dira estatu guztian zehar, langileak eskatzen.



en (1900-2019)

2000. urteko hasierako urteetan populazioak beheranzko joerarekin segidu zuen arren, **2005.** urtetik aurrera geldituta geratu da, urteko geroabeherak oso txikiak izanik. **2008**tik aurreko krisi ekonomikoak herritarren ekonomian eta bizi kalitatean ondorioak izan dituen arren, demografian ez da nabaria izan, aro honetan gertatu den eta gertatzen ari den inmigrazio berriari esker.

Azkenengo 11 urteetan (2007-2018), Eibarko populazioa 27.507 eta 27.378 biztanle artean ibili da. 2019ko datuen arabera, 27.600. biztanle ditu Eibarrek.



1980-1990: Aurreko hamarkadan hasitako krisiaren ondorioak **80.hamarkada** hasieratik aurrera hasiko dira somatzen. Eibarren kokatuta zeuden enpresa asko deslokalizatu egingo dira, lursail eta langile merkeagoen bila. Ondorioz, Eibarko biztanleriaren parte bat ere enpresa hauekin mugituko da. Bestalde, egoera ekonomikoa larria denez, jende asko (aurreko epealdietan etorritako etorkinak gehienbat) euren "herrira" bueltatuko dira (landa eremuetara). Beheranzko joera horrek eutsi egin dio bi hamarkada hauetan zehar.

1950-1960: Hamarkadarik garrantzitsuena da biztanleriaren, industriaren eta hirigintzaren ikuspegitik. Hamarkada hasieratik amaierara arte Eibarko populazioa 16.318 biztanletik 31.370era pasatzen da eta kopuru guzti honen %25a, 1954 eta 1955 urte bitarteetan bakarrik ematen da. Ordurako, Gaztela-Leoi, Kantabria eta, batez ere, Galiziako etorkin kopurua oso esanguratsua zen eta ziurrenik, urte bitarte hauetan, 'dei efektu' moduko bat egon zen.

1960-1970: Eibarko Hirigintza Plana garatzen doa, etxebizitza auzo bereziak eraikitzen dira eta, etorkinen etorrera geldoagoa bada ere, joerak jarraitu egiten du. Gainera, etorkinak ezkontzen eta haurrak izaten hasiko dira, baby boom efektuari hasiera emanez.




1973. urtean, petroleoaren krisiak Eibarko enpresetan inpaktua badu ere, datu demografikoetan ez da nabaritutako hamarkada amaierara arte. Aurreko hamarkadako baby boom efektuak aurrera jarraitzen duenez, biztanleriak igotzen jarraitzen du bere piko maximoa lortu arte (40.000 biztanle inguru **1978-1979** urte bitartean -ez dago datu ofizialik honen inguruan-).

Datu ofizialei begiratuz, **1979tik 1981**era 2.611 biztanle galtzen ditu Eibarrek.

* ITURRIAK:

1960. urtera arte: egoibarra.eus/eu/eibar/eibarko-historia/eibarko-biztanleria
1960. urtetik aurrera: eibar.eus/eu/eibar/demografia/BIZTANLERIA19602017.pdf


Atzerriko biztanleriari buruzko datuak Eibarren, jatorrizko herrialdearen arabera 2018-10-11



Kongoko Errepublika (14), Ukraina (14), Mali (13), Kongo (10), El Salvador (10), Frantzia (9), Angola (8), Paraguai (8), Mexiko (7), Bulgaria (6), Kamerun (6), Irlanda (6), Mauritania (6), Errusia (6), Boli Kosta (5), Alemania (4), Bosnia-Herzegovina (4), Ghana (4), Egipto (4), Ginea Ekuatorial (4), Estatu Batuak (4), Japonia (3), Txile (3), Palestina (3), Serbia (3), Suedia (3), Thailandia (3), Gambia (2), Ginea (2), Polonia (2), Uruguai (2), Afganistan (1), Australia (1), Belgika (1), Bielorrusia (1), Cabo Verde (1), Costa Rica (1), Kroazia (1), Finlandia (1), Guatemala (1), Hungaria (1), India (1), Montenegro (1), Herbehereak (1), Afrika Erdiko Errepublika (1), Somalia (1), Togo (1). Azkenik, 26 aberrigabe edo apatrida eta harreman diplomatikorik ez duen herrialdea (3).

Guztira: 2.453 Emakumeak: 1.152 Gizonak 1.301

Eibarko biztanlegoa sexu eta adinaren arabera (2019ko urtarrileko datuak)



Batido energetikoak **tailerra**

Jaione Yeregi (Itxesi)-ren eskutik



Otsailak 20,
eguztena

...eta kitto!-n (Urkizu 11)
3 euro

Izen-ematea:
943 20 09 18

IZEN EMATEA otsailaren 18tik martxoaren 6ra

- 08:45- 09:00:** Akreditazioa eta dokumentazioa
09:00- 09:15: Ongi-etorria.
09:20- 10:05: "Euskara eta inmigrazioa. Errealitatea eta usteak".
Gorka Moreno. Euskal Inmigrazioaren Behatokiko Zuzendaria.
10:10- 10:55: "Ahotsak.eus hezkuntzara bideratzen".
Idoia Etxeberria. Badihardugu Euskara Elkarte.
11:00- 11:45: "GU definizioen eta ekintzen kontua da".
Petra Elser. Banaiz Bagara Elkarte Zuzendaria.
11:15- 12:10: "Salto! Gazteen erabilera aisialdian".
Jokin Uranga. UEMA.
12:15- 12:35: ATSEDENALDIA.
12:35- 12:40: ARGAZKIA.
12:45- 13:10: "EuskarAbentura: Bizipenetatik eraldatzen".
Imanol Zabaleta eta Irati Labaien. EuskarAbentura elkarte kideak.
13:15- 13:35: "Euskara Enigma bizia: turismotik euskara transmititzen".
Josune Herrarte eta Esti Irureta. Zumaiaiko euskera zerbitzuko arduraduna eta turismo teknikaria.
13: 40- 14:20: MAHAINGURUA: Jokin Uranga, Petra Elser, Idoia Etxeberria.
Dinamizatzailea: JAIME ALTUNA.
14:30: AGURRA.
14:35: BAZKARIA.



EUSKARAREN
TRANSMISIOA
IX. MINTEGIA

**MARTXOAREN 12an
Portalean**

www.etakitto.eus

normalizazioa@etakitto.eus 943 20 09 18

Antolatzailea:



Euskara Elkartea

Babeslea:



Laguntzaileak:



Euzko Legebiltzarra
Gipuzkoako Foru Aldundia

Igerilari infantil eta alebinak Gipuzkoako txapelketetan

Aurreko asteburuan Bergarako Agorrosin kiroldegia Gipuzkoako Neguko Txapelketa (infantil mailan) eta XXXIV. Gipuzkoako Eskolarra (alebinetan) hartu zituen. Zapatuan jokatuakoa Eibar Igerixaneko infantil mailako sei igerilarik hartu zuten parte eta, euren artean, Paula Gabilondok zilarrezko domina bat (400 estiloetan) eta brontzezko bi (bular eta estiloetako 200 metroan) eskuratu zituen, eta Kai Zubiaurrek brontzea 100 metro bularrean. Bestalde, Eskolarteko Txapelketan Eibar Igerixaneko 11 igerilari izan ziren parte hartzen, emaitza ezin hobekak lortzeko: Iker Calvok urrezko hiru domi-

na bereganatu zituen (200 eta 100 libre eta 200 bizkar), Lucia Gabilondok urrezkoa 100 estiloetan eta brontzea 100 librean, Maddi Maguregik urrea eskuratu zuen 100 tximeletan, Leire Larrañagak zilarra 100 bizkarrean eta Malen Beobidek brontzea 100 bizkar eta 100 bularrean. Horrez gain, aipatzekoa da erreleboetako txandetan Eibar Igerixanekoek lortutakoa: zilarrezko domina libre estilo 4x100 eta 4x200ekoetan eta 4x100 estiloetan.

Igeriketa artistikoa

Denboraldi honetan abiatutako Igeriketa Artistikoko saioetan parte hartzen dutenak,



Igeriketa Artistikoko igerilariak pozik dabilta ikasten.


bestalde, asko ari dira gozaten modalitate horretan aurrera egiten doazen neurrian. Talde polita sortu dute, baina zabalik daude jende berria hartzeko; saioak zapatuero egiten dituzte Orbea kiroldegian, eta interesatuok bertan eman dezakezue izena.

Beka Jon Osarentzat

Eibarko igerilariak NCAA D2 Go Tritons-en lehiatzen duen Missouri St. Louis UMSL Swimming unibertsitatearen igeriketa beka lortu du eta aukera izango du aurrera egiteko Atlantikoaren bestaldean. Zorionak!

Jugger erakustaldiak aurre egin zion eguraldiari

Jardunaldiko euriak eta txingorak zaildu egin zituen korrika egiteko saioak, baina hala eta guztiz lau partidu jokatu zituzten guztira aurreko asteburuko domeka goizean Unbeko zelaian. Katubeltz eta Marcán Huellakoek Unbeko kafe-tegiaren ondoan jarri zituzten euren stand-ak, eguraldiak ez zuelako beste aukerarik eskaintzen. Taldeen sarrera, bestalde, bigarren pisuan ezarri zuten, modu horretan armak kudeatzeko. Arima Galduak-ekoek Udal Kirol Patronatoa-



ren laguntza eskertzen du eta "baita Akaratik ekarri zizkiguten ogitartekoak ere".

Bestalde, domeka honetan Internucleos Ligako bigarren jardunaldia jokatu dute Zara-

gozan eta Arima Galdua sailkapenean duen postuari eusten ahaleginduko da. Hurrengo asteburuan, berriz, indoor torneo jokatu da Kantabrian eta, hara, "batez ere, ikasteko asmoz" joango dira eibartarrak. Arima Galduak-ekoak 14 urte-tik gorako neska-mutilen bila dabilta, "inolako presiorik gabe" kirol modalitateaz jabetu eta taldean aurrera egiteko, "euskarri sendoagoa izateko etorkizunari begira". Interes dutenek sare sozialetara jo dezakete edo Akara tabernara.

Urbatek bere indarrak neurtuko ditu Bidasoaren aurka

Indarrez beteri jarraitzen dute Davide Cerchik presentatutako taldeek Euskal Herriko I. Mailako liga txapelketan eta, Kopako torneoan eskainitako mailari jarraituta, azken jardunaldian ere garaile izan ziren Urbat-Urkotronikeko ordezkariak: Kopa torneo irabazi zuen gizonezkoen taldea 14-9 gailendu zitzaion Leioari

Orbeako igerilekuan, azken zatian parekotasuna apurtu eta bere aldera eramaten jakin zuen partiduan; emakumezkoen taldea, bestalde, 11-6 gailendu zitzaion CD Bilbaori, orain arteko jardunari eutsiz. Asteburu honetan, baina, neurketa gogorrek izango dituzte, biek ala biek, Irunen Bidasoa talde handiaren aurka.

Afizionatuen mailako pilota partiduak gaur Astelenan

Azken asteotako martxari jarraituta, gaur ere afizionatuen mailako jaialdia izango da Astelena frontoian, 19:00etan hasita. Eibarko Klub Deportiboko pilota batzordeko lau bikote izango dira aipatutako norgehiagoketan. Lehenengo partiduan pilota eskolako bi bikoteen artekoa izango da ikusgai, Barrenetxea-Basaras eta Usobiaga-Ortega gazteen artekoa. Ondoren, Azkarraga-Camina kadeteen mailako bikoteak



Oñatiko ordezkariak egingo die aurre. Eta, amaitzeko, infantil mailako partiduan, Ibarra-Iraolagotia bikotea ahaleginduko da neurketa irabazten, hau ere oñatiarren aurkako norgehiagokan.

Eibar Foball Taldea goi-goian dago hainbat mailetako sailkapenetan

Emakumezkoen 2. Maila Nazionaleko taldea lider bakarra da egun, azken asteburuan Alavesen partidua bertan behera laga zutelako. Hiru puntuko alde hori, beraz, behin-behinekoa besterik ez da, eta talde biek borroka estuan jarraitzen dute lider postuaren bila. Liderra da baita kadeteen nesken herrialdeko Ohorezko Mailako taldea, bost puntuko aldearekin Añorgarekiko. Eta lidergoa berreskuratu du Erregional Ohorezko Mailako Eibarrek, Anaitasuna orain arteko liderrak galdu egin zuelako: eibartarrak 0-5 nagusitu ziren Donostian Deustoren aurrean. Bestalde, emakumezkoen Erregio-



Erregional Ohorezko Eibar Urkok lidergoa berreskuratu du.

nal mailako taldea bigarren da Realaren atzetik, bost puntura. Eta postu berean dago mutilen kadete mailako Euskal Ligako taldea, hori ere Realaren atzetik, eta lau puntura. Azkenik, mutilen jubenil mailan, Ohorezko Nazional Mailan jokatzeko

duen lehen taldea zarpigarraren da sailkapenean, eta Euskal Ligan jokatzeko duen bigarrena laugarren postuan dago. Postu bikainak, beraz, Eibar FT-ren ordezkariak eskuratutakoak, batez ere emakumeen arloari dagozkie.

Pello eta Txomin Osoro neguko triatloiairen Espainiako txapelketaren podiumean

Pello anaia nagusiak txapela jantzi zuen Vinuesan jokaturako proban eta Txominek hirugarren amaitu zuen. Helena ekaitza bizirik zegoela jokatu zen proba triatloia izatetik dualoia izatera pasatu zen, antolatzaileek horrela erabakita eguraldiak beste aukerarik ez zuela ematen ikusi zutenean. Parte hartzen zuten klub guztietan adostuta, lasterketak azkenean lau



kilometro oinez izan zituen, 14 bizikleta gainean eta, amaitzeko, beste bi antxintxiketan. Delteco Pello Osorok iaz irabazitako txapela berretsi zuen, Ramon Ejeda bigarrenari minutu erdi kenduta, eta Txomin bere anaiari ia minutuko alde aterata. Lorpen bikaina, beraz, beste behin Osorotarrak lortutakoa hain maila altuko lasterketan. Hurrengo erronka Europako txapelketa izango dute, Italian.

Mendizaleen irteera sagardotegira hilaren 16an

Urteko egutegian kalerik egiten ez duen irteera egingo dute hilaren 16an Klub Deportibokoek. Urteko sagardotegiaren irteerak oraingoan Aramaioa eramango ditu, bertako Iturrieta sagardotegian bazkari bereziarekin amaitzeko: "Txotx sasoiaren gaudenez, sagardotegiko menuaz gozatuko dugu". Aurretik, jakina, mendibuelta egingo dute, 13 kilometro eta erdikoa hain zuzen.

Arrasaten hasiko dute ibilbidea eta, Udala, Besaide (564 metro), Lurgorri (785) eta Tellamenditik (835) pasatuta, aipaturako Aramaioa helduko dira. Interesatuak martitzen eta eguenean pasatu daitezke Deporretik (19:30-20:30) edo 943-201904 zenbaki telefonora deitu izena emateko. Aukera bikaina, beraz, mendi errazak egin eta ezin hobeto eguna amaitzeko.



ASTEBURUKO AGENDA

FOBALLA

1. Maila

Sevilla - Eibar (etzi, 18:30)

2. B Maila

Racing - Vitoria (etzi, 17:00)

Ohorezko Erregional Maila

Eibar - Añorga (bihar, 18:00)

1. Erregionala

Segura Goierri - Urki (bihar, 15:30)

Eibartarrak - Elgoibar (etzi, 18:00)

JUBENILAK

Ohorezko Maila Nazionala

Eibar - Pamplona (etzi, 16:00)

Euskal Liga

Eibar B - Lagun Onak (bihar, 15:45)

KADETEAK

Euskal Liga

Vasconia - Eibar (bihar, 11:30)

FOBALL-ZALETUA

Feredu Solutions - Chic (bihar, 09:00)

Ipur Sagard. - Los Paisanos (bihar, 10:30)

Durango - Bar Areto (bihar, 12:00)

Slow XOK - Larragest Sport. (etzi, 09:00)

G. Garcia - JMR Erreformak (etzi, 10:30)

La Jara - Bar Txoko (etzi, 12:00)

ESKUBALDIA

1. Nazional Maila

Uharte - Somos Eibar (bihar, 18:45)

Emakumeen Gipuzkoako Txapelketa

Eibar Eskubal. - Munttarpe (bihar, 16:45)

Gipuzkoako 1. Maila

Haritza - Labarra Pulpo (bihar, 18:30)

ERRUGBIA

Ohorezko B Maila

Avia Eibar - Uribealdea (etzi, 12:00)

Emakumezkoen Euskal Liga

Econsu Gaztedi - Avia Eibar (etzi, 12:00)

SASKIBALDIA

Gipuzkoako 3. Maila

Mondragon Uni. - Avia Eibar (etzi, 16:00)

WATERPOLOA

Euskal Herriko 1. Maila

Bidasoa XXI - Urbat IKE (bihar, 19:45)

Emakumeen Euskal Herriko 1. Maila

Bidasoa XXI - Urbat IKE (bihar, 18:30)

KIROL-AGENDA OSOA
etakitto.eus HELBIDEAN
asteburuko emaitza guztiak
astelehen goizerako

Zeinek ez du Elkar ezagutzen? Liburuak, diskak, editorialak, liburudendak... Otsailaren 11n, astelehenean, Armeria Eskolan Elkar Fundazioa omenduko dute bere ibilbide luzean "ondo egindako lanagatik". Iparraldeko zenbait euskaltzalek, hogeituztira, Elkar argitaletxea sortu zuten 1972an. Bi urte geroago Ipar Euskal Herriko 20 bazkideei Hegoaldeko beste 20 batu zitzaizkien, 40ko sortzaile-bazkide taldea sortuz, Joxe Mari Sors tartean. 25 urteko ibilbide oparoaren ostean, 1996an enpresen ondasun guztiak bere baitan biltzen dituen Euskalgintza Elkarlanean Fundazioa (Elkar Fundazioa) sortu zuen Joxe Maria Sorsek beste kide batzuekin batera. Gaur egun, Joxemari Sors enpresetako gerentea izateaz gain Fundazioko patronatuko kidea ere bada, eta pozez hartu du egin duten lanari eta traiektoriari Eibarren eskainiko zaien errekonozimendua. Saioa irekia da (aurretik telefonoz deitzeko eskatzen dute bakarrik) eta 12:30etan hasiko da.

JOXEMARI SORS (Elkar Fundazioa):

"Militantzia kulturala eta profesionaltasuna uztartuz jo dugu aurrera"

- 70eko hamarkadanaren hasieran eman zituen lehen pausoak Elkarrek. Zeintzuk izan dira ibilbide horren gakoak?

Batzuentzat Elkar ezaguna da liburuengatik eta beste batzuentzat argitalpenak egiten ditugulako, baina Elkar unibertso handiagoa da. Euskal kultura indartu eta zabaltzea helburu, euskarazko kultur produktuak sortzeko, banatzeko eta saltzeko enpresa-sare bat osatu eta martxan jarri genuen. Eta helburu berarekin jarraitzen dugu lanean gaur egun ere. Erantzunak integrala behar zuen izan, hau da, ekoizpena, banaketa eta salmenta eskaini behar genuela argi izan genuen. Frankismo garatik gertoz (70 hamarkada hasiera), basamortu kulturala zegoen eta jendea gose zegoen. Sorkuntza falta zen, eta horregatik sortu zen argitaletxea. Eta zegoen sorkuntza apurra jendearen eskuetara ailegatzea nahi genuelako jarri genituen martxan liburudendak. Aldi berean, beste liburutegi eta liburudendek ere horrelako produktuak izatea nahi genuen.

- Elkarlana, konpromisoa, independentzia ekonomiko eta politikoa... Hasierako balioek bizirik jarraitzen dute gaur egun?

Hasieratik balioetan oinarritu ginen, gaur egun hain modan deuden balioetan. Elkarlana izan da gure jardunaren oinarrietako bat: barrura begira bakarrik ez, kanpora begira ere lan egitea, arlo ekonomikoan, sozialean, erakundeekin lanean... baina beti ere askatasun ekonomiko eta politikoa gordeaz. Bestalde, gaur egun konpromisoaz asko hitz egiten da. Guk militantziak hitz egiten genuen. Militantzia kultural batetik gatoz, eta hori gorde izan nahi dugu beti,


baina beti ere profesionaltasunarekin uztartuz. Eta eredu sozialeko enpresa bat gara, enpresa barruan erabakiak denentzako hartzen dira eta momentu zailetan birkolokatzeko politikak jartzen dira martxan. Lurraldetasuna ere aipatu nahiko nuke: Euskal Herrian dago gure erantzunkizuna eta muga, baina horrek ez du esan nahi estatu espainolean ez dugunik zabaldu behar. Hala ere, erabaki-gunea eta enpresaren muinak Euskal Herrian kokatuta egon behar du. Guk beti pentsatu izan dugu industria gara, hau da, industria egitura serioak jarri behar dira kulturaren garapenaren alde. Eta erakunde gisa berrinbertsio-politikaren bidez euskalgintza sustatzera jo dugu hasiera hasieratik.

- Hasierako helburuak eta gaur egungoak berberak dira beraz.

Helburuak hasierako berberak dira, bakarrik egin dena izan da garaietara moldatu. Gure bisioa beti izan da euskara eta euskal kulturaren sustapena eta garapena modu eraingikorrean bultzatzea, enpresa eta ekonomia euskal kulturaren zerbitzura jarritz.

- Urrats garrantzitsua eman zen 1996an Fundazioa sortzea erabaki zenean.

Aurretik aipatu ditugun balio horiek nahi duenak aplikatu ditzake bere enpresa barruan, baita berrinbertsio-politika ere. Guk merkaturatu segitzen dugu lehiatzen, eta beste enpresek ordaindu beharreko guztiak oradaintzen ditugu, baina akzionista bakarra Fundazioa da. Beraz, irabaziak baldin badaude, ezin dira partekatu, Fundazioan gelditzen dira, ez doaz inoren poltsikotara eta enpresaren garapenean oso garrantzitsua



Elkar Fundazioko Joxemari Sors Eibarren izango da astelehenean omenaldia jasotzen. Berarekin batera ELKAREN beste sortzaileetako bat izango da, Jon Jaka. Saioan Markel Olano Gipuzkoako Foru Aldundiko Diputatu Nagusiak eta Joan Mari Torrealdai dazle eta euskaltzainak hartuko dute parte.

da hori, denbora guztian ari zarelako zeure enpresa elikatzen.

- Zenbat enpresa daude momentu honetan Elkarren?

Produktzio enpresa bat daukagu, Leizaran; sorkuntzako argitaletxeak (Elkar, Tartalo, Sua, Txertoa, Abarka), Ikastolen elkartearekin Ikaselkar (testu-liburuak egiteko); banaketari dagokionez, Elkar banaketa eta banaketa etxeak Euskal Herrikan kanpo (Madril, Bartzelona, Valentzia...). Gainera, zazpi liburudenda ditugu Gipuzkoan, bost Bizkaian, bi Araban zein Nafarroan, eta bat Baionan. Langileei dagokienez 160 langile ditu Elkarrek Euskal Herrian eta 70 estatuan. Horietatik %90tik gora postu finkoak dira, eta %55 emakumezkoak. Lan asko daukagun aldietan, ikasturte hasieran edo eguberrian esaterako, beste 60 langile inguru kontratatzen ditugu.

- Garai berrietara nola egokitu zarete?

Uste dut ondo moldatu garela. Gertatzen dena da mehatxuak daudela eta jakin egin behar dela mehatxu horiek positibatzten. Militantzia, profesionaltasuna eta elkarlanaren bidez lortu dugu gure lankideen atxikimendua. Atxikimendu horretan datorren jendearen beste prestakuntzari esker eta gaur egun dauden teknikak kontuan hartuta, garai berrietara modu naturalean moldatzeko aukera izan dugu. Almacenetan teknologia berriak jarrita ditugu, sistema informatikoak guk garatzen ditugu, bezeroekin harremanak estandarizatuak ditugu gaurko teknologia erabiliaz... Liburuak bi euskarritan argitaratzen dira beti, paperean eta digitalean. Bestalde, sustapena ere asko garatu dugu, modu desberdinak erabiliz: lehiaketak antolatuz, aldizkar bat sortuz, aurkezpen eta tailerrak eginez gure dendetan...

- Oztopo asko izan dituzue bidean?

Gure bidea ez da batere erraza izan. Hiru modu desberdinetan izan gara jomugan. Alde batetik bonbak. Guri ere jarri zizkiguten eta hiru izan ziren!, 1976an Baionan, eta Bilintxen bi alditan, 1986an eta 87an. Gero, bigarren pausua eraso mediatikoa izan zen Tiempo, Tribuna, Epoca, El Mundo, Vanguardiarekin... Gure ibilbidea zikindu nahi izan zuten maltzurki erakunde armatuekin lortura eginez. Eta azkenik, "Dena ETA da" teoriari jarraituz, tribunaletako arazoak etorri ziren, Garzon egon zen hemen miaketak eta akusazioak egiten, eta ondoren Egunkariaren kasuan atxilotu egin gintuzten; Bestalde, galera humanoak ere

ELKAR-ek zazpi denda ditu gaur egun Gipuzkoan, bost Bizkaian, bi Araban zein Nafarroan eta bat Baionan.



izan ditugu. Elkarreko motorra izan zen Joseba Jaka 1996an hil zen, eta ondoren beste sortzaileetako bat, Jean-Louis Maitia. 1997an uholdeak izan genituen eta gure biltegi guztia suntsituta gelditu zen. 3 milioi eurotako galerak izan ziren.

- Zeintzuk dira gaur egungo erronkak?

Egoera zail batean gaude, baina etorkizuna badaukagula uste dut. Kontraesan handia dago, inoiz baino produkzio eta kalitate handiagoa dago, baina kontsumo aldaketa sakonak gertatzen ari dira, eta hor kokatu beharra dago. Papera desagertu egigo zela esaten zen, baina nik ez dut us-

te hori gertatuko denik. Digitala gelditzeko etorri da, duda barik, baina azkenean bata zein bestea elkarrekin bizi beharko dute. Asuntua da zein neurritan. Hau inork ez daki. Jakingo bagenu, argi izango genuke non inbertitu eta nola egin. Banaketa ere aldatzen ari da, eta horregatik daude liburudendak krisian. Gu saiatzan ari gara mehatxu horien aurrean gure jakituria eta gure medioak jartzen. Eta beste gauza garrantzitsu bat ikusgarritasuna da. Nire ustez hori da euskal kulturak daukan arazo inportantea. Produkzioa oso handia da aldamenen ditugun kultura handietan eta gu horien aurrean oso txikiak gara. Ikusten ez dena ez da existitzen eta leku desberdinetan ari gara eragile eta erakundeekin horri buruz hausnarketa eta inbertsioak egiten. Azkenean euskal kulturak eta euskarak egiten gaitu herri eta hori gabe ez dago etorkizunik. Hau serio hartu behar da.

“Ikusten ez dena ez da existitzen, eta hori da euskal kulturak daukan arazo inportantea”

www.etakitto.eus

**herriko ALBISTEAK
argazki BILDUMAK
BIDEOAK**

WEB

**AGENDA
KIROL-agenda eta emaitzak
KOMUNITATEA**

www.etakitto.eus

Bidebarrieta, 5 Tel. 943 201 547

CAPI
www.capiestetica.es



**BERRIA!!!
BEGI
ingurunerako
tratamendua**



**LIFTING
tratamendua**

**BETILE
LUZAPENAK**



LIFTING

LASER DEPILAZIOA

5 saioetarako BONOA 99€

**Hanka osoak + iztarreak
+ besapeak 95€**

Hanka osoak 60€

Iztarreak+Besapeak 50€

Bularra+Abdomena 50€

Bizkarra+Lunbarra 50€

Ezpaina/Begitartea 10€

Zona/saioko 30€



GAIZKA URRESTI
(zine zuzendaria)

“Kooperatibismoa mundu osoan aztertzen da gaur egun”

Gaizka Urresti zine zuzendari, gidoigile eta ekoizlea da. Portugaleten jaio zen. Kazetaritza ikasketak egin eta gero Madrilera joan zen. Han bere ekoiztetxea sortu zuen eta handik Zaragozara joan zen. Sari ugari jaso ditu. 2013an, berak zuzendutako *Abstenerse Agencias* fikzioko laburmetraiarekin Goya saria jaso zuen, besteak beste, eta aurtengo Goya Sarietan saria jaso duen “Cerditas” laburmetraian ere parte hartu du. Datorren asteazkenean Coliseo Antzokian berak zuzendutako “Arizmendiarieta, el hombre cooperativista” dokumentala ikusteko aukera izango dugu, 19:00etan.



- Nola sortu zen Arizmendiarieta eta kooperatibismoaren inguruko dokumental hau egiteko ideia?

Idea nirea izan zen. Asko gustatzen zaizkit biografiak, batez ere kulturari lotutako pertsonaia esanguratsuenak, baina 2005ean Fernando Molinak Arizmendiarietari buruz egin zuen biografia irakurri nuenean guztiz harriruta gelditu nintzen pertsonaiekin. 2013an krisi garaian murgilduta geunden eta, Arrasateko apaizak egindakoa aztertu ondoren, iruditu zitzaidan oztopoen aurrean beti eman daitekeela pauso bat aurrera. Arizmendiarietak (Markina 1915-1976) jendearen bizimodua hobetzeko borrokatu zuen eta horretarako baliabideak jarri zituen, beste inizatiba politiko eta ekonomikoak ikertuz, eta azkenik inizatiba propioa eraikiz. Kooperatibismoa mundu osoan aztertzen da gaur egun.

- Eibarri ere erreferentzia egiten diozu dokumentalean, ezta?

Zentzu horretan, Arrasateko kooperatibismoa baino lehen Euskal Herrian izandako esperientzia konparatiboak ikertzera-koan, Eibar oso inportantea dela esan beharra dago. 20. hamarkadan Arizmendiarietaren osaba bat Alfako kidea izan zen eta apaizari asko interesatzen zitzaion Alfan gertatutako fenomenoak, ahuleziak eta indarguneak. Alfan gertatu zena Arrasaten ez gertatzeko, ezinbestekoa ikusi zuen Caja Laborala sortzea, proiektuak eta inbertsioak finantziatu ahal izateko. Toribio Etxeberriarekin erbestean izan zuen harremanari buruz hitz egiten da dokumentalean.

- Gaur egun enpresetan azpimarratzen diren balioak kooperatibismoak bultzatu zituenak direla esan daiteke?

Oso deigarria da 50. hamarkadan Arizmendiarieta bezalako pertsona batek gaur egun multinazionalak erabiltzen dituzten kontzeptu eta ideiei buruz hitz egitea: hezkuntza, berrikuntza, ahalduntzea, langileen partehartzea gestioan, irabazien banaketa. Horretaz Arrasateko apaiz batek egin zuen berba orain dela 60 urte, gezurra badirudi ere! Askotan atzera begiratu beharra daukagu.

- Dokumentalean Arizmendiarieta ezagutu zutenen testigantzak agertzen dira.

Nik “apostoloak” deitzen ditudanak agertzen dira, Arizmendiarieta Arrasatera heldu zenean (Markinan jaiotakoa zen) “dektatu” egin zituenak. Arizmendiarietak lideratu eta inspiratu zituen proiektua aurrera eraman ahal izateko. Batzuk oraindik bizirik daude eta oso inportantea zen euren bizipenak jasotzea.

- Animazioa erabili duzu zenbait pasarte isladatzeko.

Argazkiak bazeuden baina filmazioak oso gutxi, garai hartan baliabide eskasak zeudelako eta, horretaz aparte, gauzak diskrezio handiz egin zirelako. Zenbait eszena isladatzeko, Caja Laboralaren sorrera esaterako, bi aukera zeuden, aktoreekin egitea eta animazioarekin, eta hau egokiagoa iruditu zitzaigun zenbait eszena birsortzeko.

Elgoibarko Taupadak “Ikasgaia” antzeztuko du gaur Coliseoan

Gaur 20:30ean “Ikasgaia” antzezlana eskainiko du Elgoibarko Taupada konpainiak Coliseo antzokian. Edurne Lasak zuzendutako lan honetako antzezleak Sara Iriondo eta Jon Olivares dira eta lanak autoritarismo arrisku-bilakatzen den lekzio sinple baten istorioa kontatzen du. Batxiller gazte batek klase partikularrak jasotzen ditu irakasle nagusi baten etxean. Horrek geografiaz, matematikaz, linguistikaz eta filologiaz egiten dio berba. Denborak aurrera egin ahala, lezioa gero eta konplexuagoa egiten da, eta ikasleak jadanik ez ditu bere irakaslea-

ren azalpenak ulertzen. Gaztea, hasieran motibatua eta indartsu sentitzen zen, baina azkenean bere indar guztia galtzen du. Irakaslea, aldiz, hasieran lotsatia eta urduri azaltzen bazen ere, gero eta agresiboago azalduko da. Pertsonaia bien arteko zuloak itzela izaten amaituko du azkenean.

Taupada konpainiak 40 urte bete dituela eta, hori ospatzeko jatorri errumaniarra duen Eugene Ionesco idazle eta antzerkigile frantziarraren “Ikasgaia” izenburuko lan hau ekoiztu dute. Sarrerak 8 euro balio du (6 euro Coliseoaren Laguna txartelarekin).





Hendrik Rover & los Míticos GT's domekan Portalea Musika Klubean

Etzi 19:30ean hasiko da Portalea Musika Klubaren barruan otsailean eskainiko duten jaialdia. Hor izango da Hendrik Röver blues, rhythm and blues eta rock gitarrajole ospetsua, Míticos GT's-ekin batera hirukote indartsu eta bizia osatzen. Rover-en abestiekin, Goyo Chiquitoren kontrabaxu bizkorak eta Toño López Bañosen erritmo lan bikainak "eszenatokia egiazko urakana" sortzen dutela diote. Hendrik Roverrek zortzi disko argitaratu ditu beste hainbat urtetan eta Míticos GT's-ekin "Incluye Futuros Clásicos" (2014), "Live en La Burbuja" zuzeneko emanaldia (2015) eta "Fetén/Fatal" bikoitza (2016) grabatu ditu.

Castor Garatek "Lexicón del castellano eibarrés" kaleratu du

Eusko Jaurlaritzako kontseilari-ohiak bakarrik Eibarren eta inguruan erabiltzen diren "erderazko" 330 berba batu ditu orain kaleratutako liburu berrian. Egileak dioen moduan, "Eibarko euskerak bere berezitasunak dituen moduan, hemengo erdarak ere baditu bereak, hemengoak eta ez beste inongoan direla nabarmentzen dituztenak". Liburuan jasotako berba asko euskeratik zuzenean hartutakoak dira eta beste batzuk erdarazko berben erabilera partikularrak dira, "guztiak ere denborarekin gureak egin ditugunak". Liburua Yraolagoitia liburudendan dago salgai, 12 eurotan.




Nanoipuin lehiaketa

Udalak, Udal Euskaltegiarekin eta AEK euskaltegiarekin lankidetzan, Nanoipuin lehiaketa antolatu du. Lehiaketan parte hartu nahi duenak pasadizo barregarriren bat, ezustekoren bat, amodio konturen bat... kontatu beharko du, 200 karakteretan. Posta elektronikoki bidez jasoko dituzte euskaltegia@eibar.eus, eibar@ae.eus edo euskara@eibar.eus helbideetan eta Juan San Martin Liburutegian lagatzeko aukera ere badago. Lanak entregatzeko epea otsailaren 24an itxiko dute. Informazio guztia www.eibar.eus helbidean daukazue.

Gilari omenaldia

Beheko Tokia jubilatutako etxeak San Balentin ospatzeko antolatu dituen artean, egunean 17:30ean Gila umorista ezagunari eskeinitako ikuskizuna aurkeztuko du La Red Teatro taldeak.




Poesia eta musika

Itzamna poesia tailerreko kideek errezeitaldi poetiko musikala egingo dute egunean, 19:30ean Portalean. Blas de Otero eta Angela Figueraren poemak errezeitatu dituzte, Alberto Luis Eguiak pianoarekin lagunduta. Eta otsailak 16an, 18:00etan Itzamna Akademian egingo duten saioan Dory Lansorenaren "Soñador de Nubes" liburua aurkeztuko dute.

Otsailerako argazki erakusketak

Klub Deportiboko Argazki Taldearen eskutik hiru erakusketa hauek egongo dira martxan otsailean: Daniel Aranbururen "De todo un poco" izenburukoa, Ambigú tabernan; F11 Taldearen argazki erakusketa Depor tabernan; eta Klub Deportiboko Argazki Taldekoen argazki erakusketa Portalea jatetxean.



Eibarren egingo den Kultur Memoriak ekimena aurkeztu dute

Memoria eta ondare soziokulturala gordetzeko asmoarekin sortu den Memoriak izeneko ekimena aurkeztu zuten astelehenean Donostian Denis Itxaso Kultura sailburuak eta Maria Ubarretxena, Eneko Etxeberria eta Miguel de los Toyos, Arrasate, Azpeitia eta Eibarko alkateek, Jose Luis Roncero, ekimenaren koordinatzailearekin batera. Aurreratu zutenez, ekimena Arrasate, Azpeitian eta Eibarren burutuko da otsailean, martxoan eta apirilean eta asmoa "mapatze parte-hartzailea egitea" da. Azaldutakoaren arabera, "mapatzea sorkuntza parte-hartzaile prozesu bat da, non sorkuntza formatu ezberdinak erabiliz (bideoa, audioa, argazkiak, artxiboko materiala, ibilbideak...) herritarrek udalerrri bat arakatu eta horren errealitate soziokulturala identifikatu eta dokumentatu egiten duten, talde kontaketa bat egiteko. Sortutako edukiarekin ibilbideak eta mapa kulturalak diseinatuko ditugu, herri horien memoria sozio-kulturalaren inguruan. Eta hori guztiak proiektuaren web orrian ikusgai egongo da".

Eibarren, hiriko historian aztarna utzi duen jarduera industrialak dokumentatu nahi dute: "Ongizate urteak, industria krisia, migrazioak, formakuntza eskolak, gizarte eta hirigintza aldaketak, kirola, jarduera eta ohitura kultural eta jaietakoak... guzti hori aukokoei elkarrizketak eginez, artxibo dokumentu eta argazkiak erabiliz...". Proiektuaren helburu nagusia bertakoek taldea osatu eta talde horri formakuntza ematea da eta talde horietan 15-20 bat la-



gunen parte-hartzea lortu nahi dute: "Lantegietan lurraldea mapatzen eta narratiba digitalak zein edukiak sortzen irakatsiko zaie. Eduki horien sorkuntza tresna telefono mugikorrek izango dira. Lantegiek 12 ordu inguruko iraupena izango dute eta saioetan trebakuntza zein edukien sorkuntza tartekatuko dira".

Proiektua abiatu aurretik aipatutako hiru herrietan aurkezpen bat egingo dute, boluntarioak biltzeko. Informazio gehiago eskatzeko eta izena emateko interesa izanez gero, info@kulturmemoriak.eus helbidera idatzi daiteke edo, bestela, 622825113 telefonora deitu.



Keixetaren "Dikotomia" pintura eta zeramika erakusketa zabalduko dute gaur Portalean

Gaur 19:00etan inauguratuko dute Portalean "Dikotomia", Keixeta (Arroa, 1963) artistaren pintura eta zeramika erakusketa, azken hiru urtetan egindako lanekin. Erakusketari izena ematen dioten bi bloke independentek osatzen dute bilduma; alde batetik pinturari eskainitako ataladago, tamaina ertain eta handiko 30 kuadro baino gehiagorekin; eta, ho-

rrekin batera, tornu buztingilearen teknika tradizionalarekin sortutako eskulturak ere ikus daitezke. Martxoaren 3ra arte zabalik egongo den erakusketa osatzeko irudiak proiektatuko dituzte, bisitan doazenek artistak erabiltzen dituen lan-prozesu esperimentalak ikus ditzaten. Martitzenetik domekara bitartean zabalduko dute, 18:30etik 20:30era.

Euskaraldiaren bigarren edizioa, 2020ko udazkenerako

Euskaraldia ariketa sozialaren bigarren edizioa 2020 urteko udazkenean egitea erabaki dute. Antolatzaileak xehetasunak lantzen ari baldin badira ere, bi ardatz izango dituela aurreratu dute: batetik, euskal herritarrei deia egingo zaie, ahobizi eta belarriprest rolen bitartez hizkuntza ohiturak aldatzen jarraitzeko; bestetik, bigarren edizioko berrikuntza modura, era guztietako entitateek (erakunde publikoak, enpresak,

saltokiak, elkarteak...) beraien funtzionamenduan euskararen erabilera areagotzeko urrats zehatzak ematea bultzatuko dute. 2018ko azaroaren 23aren eta abenduaren 3aren artean egindako ariketan izena eman zuten 220.000 belarriprest eta ahobizien azterketa egin dute; hain zuzen, udan, Euskaraldiaren lehen edizioak izan duen eraginaren emaitza gehiago jakin ahal izango dira.





III. Mendi Mendia Racing Jaixa bihar ELGETAN

Bihar jai horretako hirugarren edizioa egingo dute Elgetan. Eguneko egitaraua goizean hasiko da, 11:00etan, plazan eskainiko den auto erakusketarekin eta orduan hasiko den pintxo-potearekin. 12:00etan triki-poteoa hasiko dute eta, handik ordu eta erdira, 13:30ean, Danok Plazara ekitaldia burutuko dute, talde-argazkia egiteko. 14:00etan bazkaria egingo dute Antzokian (patatak errioxar erara eta oilaskoa brasan). Horko txartelak 16 eurotan daude salgai, kontzertua barne). Amaitzeko, 21:30ean hasiko da kontzertua antzokian, goizera arte luzatuko den jaiaren barruan. Kontzertuan Barne Guda, Demenciais eta Brigade Loco taldeek hartuko dute parte.



Bisita gidatua etzi DEBAKO Santa Maria elizara

Domeka eguerdian, 12:00etan, hasiko dute "Gotikoaren altxorra, Deban" bisita gidatua, ekitaldi horretan Santa Maria eliza ezagutzeko aukera eskainiz. Bisita euskaraz egingo da eta, informazio gehiagorako, interesatuek www.geoparkea.eus helbidera jo dezakete. 1931n monumentua izendatu zuten XV. mendeko eraikin hori.

eguraldia (EUSKALMET.NET)

Ostirala	Larunbata	Igandea	Astelehena	Asteartea

hildakoak

- Margarita Gomez Mendez. 65 urte. 2019-I-28.
- Rosalina Robles Tejedor. 84 urte. 2019-I-31.
- Cesar Tejada Tibaida. 86 urte. 2019-II-1.
- Isidro Alonso Millan. 93 urte. 2019-II-1.
- Maria Azpiazu Azpiazu. 85 urte. 2019-II-2.
- Benjamin Villabella San Martin. 75 urte. 2019-II-2.
- Jesus Zulueta Elortondo. 99 urte. 2019-II-2.
- Jose Taboada Gomez. 88 urte. 2019-II-3.
- M^a Angeles Cobo Aja. 65 urte. 2019-II-3.
- Cesarea Crespo Prieto. 96 urte. 2019-II-3.
- Abdeslam Bensarghin. 53 urte. 2019-II-5.

jaiotakoak

- Iraia Bilbao Arrate. 2019-I-22.
- Eneko Valderrey Romero. 2019-I-28.
- Anabia Nazir. 2019-I-28.
- Jakes Cestafe Leturia. 2019-I-31.
- Kai Aranburuzabala Murakami. 2019-I-31.
- Nour El Gagui Friji. 2019-II-1.
- Julia Agote Korta. 2019-II-2.
- Xare Jauregi Ulazia. 2019-II-3.

SUDOKUA

AURREKOAREN
EMAITZA

5	8	1	4	3	9	6	2	7
3	6	4	1	2	7	5	8	9
2	7	9	5	8	6	1	4	3
6	4	5	8	7	3	2	9	1
1	2	3	9	5	4	8	7	6
8	9	7	2	6	1	4	3	5
4	1	2	7	9	5	3	6	8
9	5	6	3	4	8	7	1	2
7	3	8	6	1	2	9	5	4

7			4		3		8	
	6	3				5		
			9					1
		8		9		3		
	7		2			8		
	9		5		7			
9			7					
	6			4	1			
5		2		3				6

farmaziak

- Barixakua 8
EGUNEZ Elortza (J. Gisasola, 18)
- Zapatua 9
EGUNEZ Iraundegi (Calbeton, 19)
- Domeka 10
EGUNEZ Mendinueta (Urkizu, 6)
- Astelehena 11
EGUNEZ Barandela (Z. Agirre, 4)
- Martitzena 12
EGUNEZ Zulueta (San Agustin, 5)
- Eguaztena 13
EGUNEZ Morgado (San Agustin, 3)
- Eguena 14
EGUNEZ Castaño (J. Etxebarria, 7)
- Barixakua 15
EGUNEZ Azkue (T. Etxebarria, 4)

GAUEZ BETI - 2019AN-
Zulueta (San Agustin, 5)

telefono jakingarriak

- SOS deiak.....112
- Pegora.....010
- Udaletxea.....943 70 84 00
- Portalea.....943 70 84 39
- Udaltzaingoa.....943 20 15 25
- Mankomunitatea.....943 70 07 99
- Debegesa.....943 82 01 10
- KIUB.....943 20 38 43
- Epaitegia.....943 03 34 00
- Iberdrola.....900 17 11 71
- Naturgas.....902 12 34 56
- DYA Larrialdiak.....943 46 46 22
- Gurutze Gorria.....943 22 22 22
- Eibar Ospitalea.....943 03 29 00
- Mendaro ospitala.....943 03 28 00
- Anbulategia.....943 03 25 00
- Errepideak.....902 11 20 88
- Ertzaintza.....943 53 17 00
- Eusko Tren.....902 54 32 10
- Lurraldebus.....900 30 03 40
- Pesa.....900 12 14 00
- Taxiak.....943 20 30 71
-943 20 13 25
- Alkohol.Anon.....629 14 18 74
- Al-Anon/Alateen.....650 26 59 63
- Grupo Egun Bat (Jokazale Anonimo eta Familiak) ...699 37 75 20

Barixakua 8

IKASTEN

10:00. Antzerkia. Luzatze-ariketak. Portalean.

11:00. Jardiñetan. San Andres egoitzan.

GAZTELEKUA

18:00. "Aratosteak prestatzen". Indianokua gaztelekuaren kalejira-mozorroa prestatzeko bilera. Indianokuan.

INAUGURAZIOA

19:00. "Dikotomia", Keixetaren pintura eta zeramika erakusketa. Portalean.

ZINE-FORUMA

19:00. "No soy un hombre fácil" (Eleonore Pourriat), Pagatxaren eskutik. Dinamizatzailea: Izaskun Rodriguez Elkoro. Sarrera librea. Portalean.

ANTZERKIA

20:30. "Ikasgaia" (Taupada). 8 euro (6 euro Coliseoaren Laguna txartelarekin). Coliseoan.

Zapatua 9

ASTELENA PARKEA

11:00/14:00 & 16:30/20:30. 3 euro (EMGI bonoarekin doan). Astelena frontoian.

BATZARRA

16:00. ARCE Eibarko Irratizaleen Elkartearen urteko batzarra (2. deialdia **16:15**ean). Eskarne jatetxean.

KIROLA FAMILIAN

17:30/19:30. Jolasteko gune irekia, Haur Hezkuntzako ume (2-5 urte) eta gurasoentzat. Ipuruia kiroldegian.

KALEETAN KANTUZ

19:30. Abesbatzaren kalejira. Urkizutik abiatuta.

MUSIKA

23:30. "Ro" taldearen kontzertua. Ez Dok tabernan.

Domeka 10

KALEJIRA

11:00. Usartza Txistulari Taldearen kalejira. Untzagatik abiatuta.

KIROLA FAMILIAN

17:30/19:30. Jolasteko gune irekia, Haur Hezkuntzako ume (2-5 urte) eta gurasoentzat. Ipuruia kiroldegian.

MUSIKA

19:30. "Hendrik Rover y los Miticos GTS" taldearen kontzertua (Portalea Musika Kluba). 10 euro (7 euro Coliseoaren Laguna txartelarekin). Portalean.



Astelehena 11

IKASTEN

10:00. Antzerkia. Luzatze ariketak. Portalean.

ELKARRETARATZEA

12:00. Jubilatuta eta pentsiodunen elkarretaratzea, pentsio duinak eskatzeko. Untzagan.

ONDO EGINDAKO LANA

12:30. Elkar fundazioari omenaldia: Joxemari Sors (Elkar), Jon Jaka (Elkar), Markel Olano (Diputatu nagusia) eta Joan Mari Torrealdairen solasaldian. Armeria Eskolan.

BIDEO-FORUMA

18:30. Emakumeen Istorioak: Edurne Pasaban. Pagatxaren eskutik. Dinamizatzailea: Patricia Perez Coto. Sarrera librea. Portalean.

Martitzena 12

IKASTEN

10:00. "Paradisu fiskalak" hitzaldia, J.R. Mariñoren eskutik. Sarrera librea. Armeria Eskolan.

IKASTEN

16:00/19:00. Puntu-tailerra. **17:00/20:00.** Joskintza-tailerra. Portalean.

TAILERRA

18:00. "Haurrak, poesia eta eskola" gurasoentzako tailerra, Yolanda Arrietaren eskutik. Portalean.

ELKARRETARATZEA

19:00. "Elkartasuna aterpe. Konponbidea, demokracia, Ilibertat" Kataluniarekin elkartasuna adierazteko, Gure Esku Dagok deituta. Untzagan.

Eguaztena 13

IKASTEN

10:00. Luzatze ariketak. Biodantza ikastaroa. Portalean.

GURASOAK MARTXAN

18:30. "Hazkuntzaren alderdiak", Baikararen eskutik. Portalean.

KORRIKA

18:30. Korrika batzordearen lehen bilera. AEK euskaltegian.

PROIEKZIOA

19:00. "Arizmendiarieta, el hombre cooperativo", Gaizka Urrestiren dokumentalaren proiektzioa. 3 euro. Coliseoan.

EIBARKO KANTUZALEAK

19:00. Abesbatzaren entsegua. San Andres elizako lokaletan.

Eguena 14

IKASTEN

10:00. "Botere judizial burujabea" hitzaldia, Garbiñe Biurrunen eskutik. Sarrera librea. Armeria Eskolan.

IKASENPRESA AZOKA

10:00/13:00. Ikasentza azoka. Untzagan eta Txaltxa Zelaian.

SAN BALENTIN

17:00. Txokolate-jana eta klabelinak emakumeentzat. Urkiko jubilatuen etxean. **17:30.** Txokolate-jana, antzerkia, omenaldia eta oparien zozketa. Beheko Tokia jubilatuen etxean.

KALEETAN KANTUZ

17:00. Dantza taldearen entsegua (hastapena, beteroen entsegua **18:00**etan hasiko da). **19:30.** Abesbatzaren entsegua. San Andres elizako lokaletan.

ODOL-ATERATZEA

18:30. Odola ateratzeko saioa, odol-emaileentzat. Anbulatorioan.

POESIA ERREZITALDIA

19:30. Itzamna poesia tailerrekoen eskutik. Blas de Otero eta Angela Figueraren poemak errezitatuko dituzte, Alberto Luis Eguiak pianoarekin lagunduta. Sarrera librea. Portalean (areto nagusian).

Erakusketak

Otsailaren 17ra arte:

– OSCAR GARCIA GISASOLAREN EIBARKO AKUARELAK (Untzagako jubilatuta etxea)

Otsailaren 28ra arte:

- DANIEL ARANBURUREN "DE TODO UN POCO" ARGAZKIAK (El Ambigú taberna)
- F11 TALDEAREN ARGAZKIAK (Depor taberna)
- KLUB DEPORTIBOKO ARGAZKI TALDEAREN ARGAZKIAK (Portalea jatetxea)

Martxoaren 3ra arte:

– "DIKOTOMIA" KEIXETAREN PINTURA ETA ZERAMIKAK (Portalea)

Zure senide edo lagunen bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena, 8 euro (bazkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena baino lehen egon beharko da ...eta kitto!-n. Hemendik aurrera zorion-agurra etakitto.eus webgunean ere argitaratzeko aukera daukazu. Prezioak bertan kontsultatu ditzakezue.



Ongi etorri, XARE, eta zorionak Ehari eta Gorkari. Suhar ere poz-pezoz dozu, zurekin jolasten hasteko gogoz.



Zorionak, LIBE, domekan 5 urte beteko dozuz-eta. Musu bat famelixa guztiaren partez, eta potolo bat Aner-en partez.



Zorionak, IKER!, atzo etxeko mutil haundixak 5 urte bete zittuan-eta. Musu haundi bat famelixaren partez!



Zorionak, XABAT Magunazelaia, martitzenian 5 urte bete zenduaz-eta. Patxo haundi bat famelixaren partez.




Zorionak, JON!, aste honetan 2 urtetxo bete dozuz-eta. Patxo bat famelixaren eta, batez be, Ane eta Anderren partez! Maite zaittugu.



Zorionak, NERE!, hillaen 5ian 2 urte bete zenduaz-eta. Musu haundi bat famelixaren eta, batez be, Liberen partez!



Zorionak, MIREIA, San Blas egunian urtiak egin zenduaz-eta. Patxo bat kuadrillaren partetik.



Zorionak, ASIER Agote Ramirez, bixar 4 urte betek dozuz-eta. Musu haundi bat famelixaren partez.



Zorionak, OIER!!!, astelehenian 6 urte beteko dozuz-eta. Musu haundi bat famelixa guztiaren partez.



Zorionak, ANE Biribai Gorrotxategi, zure 5. urtebetetzian. Musu haundi bat famelixa guztiaren partez.



Ongi etorri, JAKES! Musuak Ekhi, Paule eta famelixa guztiaren partez!!!



JON gure txikixak gaur 3 urte betetzen dittu. Zorionak amama, aitxitxa, aitta, ama eta, batez be, CLAUDI!ren partez!! Jarraitu hain alai!!!



Zorionak, DIEGO (San Blas egunian 41 urte) eta IBAITXO (bixar 2 urte). Jarraitu zuen irrifarre goxuekin eta hain alai! Musu potolua etxekuen partez.



Zorionak, AMATXO-Amama eta AITXA-Aitxitxa, zuen urtebetetze egunian. Bihotzez, zuen etxeko famelixa guztiaren partez!!

zineaColiseoan

(1 ARETOAN)

9an: 19:45, 22:30

10ean: 20:00

11n: 20:30

"The Old Man & the Gun"

Zuzendaria: David Lowery



(2 ARETOAN)

9an: 17:00, 19:45, 22:30

10ean: 17:00, 20:00

11n: 20:30

"La favorita"

Zuzendaria: Yórgos Lánthimos



(ANTZOKIAN)

9an: 17:00⁽¹⁾, 19:45, 22:30

10ean: 17:00^(1 Aretoa), 20:00

11n: 20:30

"Green Book"

Zuzendaria: Peter Farrelly



(ANTZOKIAN)

9an: 17:00

10ean: 17:00^(EUSKERAZ)

"Dragon Ball Super. Broly"

Zuzendaria: Tatsuya Nagamine



i Atal honetako iragarkiak **doan** dira, etxeen, lokalen, autoen eta irakaskuntzako eskaintzen kasuan izan ezik. Azken horietako **PREZIOAK**, beti ere **4 ASTERAKO**, honakoak dira: Etxeak, lokalak eta garajeak: alokatu, 12 euro; saldu, 17 euro. Autoak eta irakaskuntzako eskaintzak: 12 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez. Iragarki guztiak **etakitto.eus** webgunean ere argitaratuko dira.

1. Etxebizitza

1.1. Salgai

– Pisua salgai Julian Etxeberria kalean. 3 logela, 2 egongela, sukaldea eta komuna. 85 m². Kalefakzioarekin. Tel. 615-781231.
– Pisua salgai Barrera kalean, Mutualia parean. 2 logela. Guztia kanpora begira, balkoiarekin. Berritua eta guztiz jantzia. Kalefakzioarekin. Bizitzera sartzeko moduan. 135.000 euro. Garaje itxia aukeran (15.000 euro). Tel. 679-867543 eta 660-805301.

1.2. Errentan

– Eibarren logela bat hartuko nuke alokairuan. Tel. 612-450354.
– Iruñeako 26 urteko mutilak pisua hartuko luke alokairuan Eibarren. Zonaldean egiten du lan. Tel. 666-386563.
– Emakume batek pisua edo 2 logela hartuko lituzke alokairuan. Tel. 680-691739.

3. Lokalak

3.2. Errentan

– Gazteendako lokala alokagai Jardifñeta kalean. 170 m². Legeztatua eta argitsua. Tel. 656-756485.

4. Lana

4.1. Lan bila

– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 662-012834.
– Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 677-768682.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Baita ospitalean ere. Tel. 612-539941.
– Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Baita gauzez eta asteburuetan ere. Tel. 617-896989.
– Eibarko 18 urteko neska eskaintzen da edozein lan egiteko. Euskara goi maila eta ingeles ertaina. Tel. 666-843393.
– Emakumea eskaintzen da pisuak edo pegorak garbitzeko eta nagusiak zaintzeko. Interna. Tel. 698-406654.
– Emakume euskalduna eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Baita ospitalean ere. Esperientzia eta formakuntzarekin. Tel. 660-511781. Elena.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Formakuntza sozio-sanitarioa eta esperientzia. Tel. 671-989434.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Ordu-tegi malgua. Tel. 636-517025.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Ordu-tegi malgua. Tel. 688-959575.
– Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 643-781722.
– Gizonezkoa eskaintzen da eraikuntzalanak egiteko eta umeak zaintzeko. Tel. 603-292970.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 659-513528.

– Emakumea eskaintzen da 14:00etatik aurrera umeak edo nagusiak zaintzeko. Tel. 602-800266.
– Neska arduratsua eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko, garbiketarako egiteko eta sukaldean jarduteko. Tel. 612-450354.
– Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 609-312279.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 632-808708.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 691-214897.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta beste edozein lanetarako. Tel. 677-882490.
– Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta errekaok egiteko. Esperientzia. Tel. 632-271530.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Ordu-tegi malgua. Tel. 604-101618.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Ordu-tegi malgua. Tel. 654-444945.
– Geriatria titulua duen mutila eskaintzen da lan egiteko. Tel. 631-627919.
– Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Esperientzia menpekotasunezko pertsonekin eta etxeko lanetan. Erreferentziak. Tel. 632-480376.
– Neska eskaintzen da umeak zaintzeko. Ordu-tegi malgua. Tel. 688-640061.
– Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Ordu-tegi malgua. Esperientzia. Tel. 632-251861.
– Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Ordu-tegi malgua. Tel. 648-039187.
– Mutila eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta beste edozein lanetarako. Tel. 732-874915.
– Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 712-296098.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Interna. Tel. 689-483646.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 602-084256.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 631-145986.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 632-642350.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Externa. Esperientzia. Tel. 626-407923.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Interna. Esperientzia. Tel. 612-490124.
– Neska arduratsua eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 632-489669.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Ordu-tegi malgua. Tel. 632-317670.
– Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Baita etxez-etxe laguntzeko ere. Tel. 636-407923.
– Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko. Ordu-tegi malgua. Tel. 631-906590.
– Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko. Ordu-tegi malgua. Tel. 612-476921.
– Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko. Ordu-tegi malgua. Tel. 612-574783.
– Emakumea eskaintzen da goizez garbiketarako egiteko. Orduka. Tel. 631-159373.
– Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Erreferentziak. Tel. 686-212840.

– Emakumea eskaintzen da arratsalde nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Orduka. Tel. 689-003537.
– Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 635-587617.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Esperientzia. Tel. 633-205039.
– Gizona eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Esperientzia. Tel. 616-809926.
– Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Esperientzia. Jaurilaritzaren ziurtagiriarekin. Tel. 667-60292.
– Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta etxeko garbitzeko. Esperientzia eta erreferentziak. Tel. 722-562241.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 632-524180.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko, etxeko lanak egiteko eta pegorak edo soziedadek garbitzeko. Tel. 642-467834.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko (etxeak, soziedadek). Tel. 680-526228.
– Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 632-388279.
– Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 650-629319.
– Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko. Tel. 631-729476.

4.2. Langile bila

– Kamarera/o behar da Eibarren asteburuetan lan egiteko. Bidali curriculum-a: tre@euskalnet.net
– Kamarera/o behar da Eibarko taberna batean. Tel. 622-142679.
– Langilea behar da Eibarko No+Vello estetikazentroan. Estetizista- titulua, laser depilazioan edo IPL-an esperientzia, merkataldohaia eta euskera maila baloratuko dira. Bidali curriculum-a: eibaregogain@nomasvello.com
– Saltzailea behar da Eibarko denda batean. Bidali curriculum-a: EsEibar@hotmail.com

5. Irakaskuntza

5.2. Eskaintzak

– DBH, Batxilergo eta Unibertsitateko Matematikak, Fisika, Kimika, etab.-eko klaseak ematen dira. Banakako klase egokituak edo 2-3 ikasleko taldekoak. Goizez ikasteko aukera. Tel. 677-592509. Alberto.

6. Denetarik

6.1. Salgai

– Logela salgai. la berria. Ohe tolesgarria, bi mesila eta sifonier ispiluarekin. Prezio oso onean: 300 euro. Tel. 632-271530.

6.2. Eman

– Txakurkumeak oparitzen dira. Tel. 667-942731.
– Katakumeak oparitzen dira. Tel. 628-502347.

1. ETXEBIZITZA

- 1.1. Salgai
- 1.2. Errentan
- 1.3. Konpartitzeko
- 1.4. Etxe trukaketa

2. MOTORRA

- 2.1. Salgai

3. LOKALAK

- 3.1. Salgai
- 3.2. Errentan

4. LANA

- 4.1. Lan bila
- 4.2. Langile bila

5. IRAKASKUNTZA

- 5.1. Eskaerak
- 5.2. Eskaintzak

6. DENETARIK

- 6.1. Salgai
- 6.2. Eman
- 6.3. Galdu/Aurkitu
- 6.4. Bestelakoak

943 20 09 18
publizitatea@etakitto.eus

VIII. FERIA IKASENPRESA AZOKA

2019ko Otsailak 14

10:00 / 13:00 · EIBAR · UNTZAGA PLAZA



LANBIDE HEZIKETAKO IKASLEEK SORTUTAKO ERA GUZTIETAKO PRODUKTUAK ETA ZERBITZUAK!

#feriaikasenpresa @ekingune



LIKIDAZIOA
Jubilazioa
dela-eta



San Agustín, 2
943 203762

www.desvan.net

 [desvandecoracioneibar](https://www.instagram.com/desvandecoracioneibar)

38 urte eta gero, denda itxiko dugu. Eskerrak eman nahi dizkiegu gure bezeroei, urte hauetan gudan ezarritako konfidantza guztiagatik.

Laister arte!

Gure betaurreko guztiak
bilduma berrietakoak dira




2 mó graduatu
erreflexuen aurkako lenteekin
99€

R.P.S. 175/15 I.L.G.

Kontsultatu itzazu zure optikan kanpainaren ezaugarriak. Ezingo da beste eskaintza batzuetan erabilti.



PARTEKA ITZAZU ZUK NAHI DUZUNAREKIN

www.multiopticasgipuzkoa.com   

Bidebarrieta, 2
Tel.: 943 20 05 22
EIBAR

MULTIOPTICAS
lehen zerbitzu optikoetan